

Bilbao Ría 2000

Espekulazioaren eredu agortua

Donbass gerran:
Hau arnasten da
gatazkaren epizentroan

Ingelesaren mitoak
Nafarroan

Ixiar Rozas:
"Liburu feminista
da *Beltzuria*"



Datorren astean





Azaleko argazki
muntaketa:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitaratu ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Añña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko martxoaren 22a, 2.454. zenbakia

ASTEKO GAIA

BILBAO RÍA 2000 Azken hata ematear den ereduaren
argi-itzalak. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

OIER ZUÑIGA: «UPNk bultzatu duen ikuspegia da hobbyrako
sorkuntza». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

SAGAR MOREEN IRAULTZA HERNANIN “Beldurra lekuz
aldatuko dugul”. KATTALIN MINER / 16

IRITZIAREN LEIHOA

DESBERDINTASUNEN AROA MIKEL ZURBANO / 18

PERTSONA HELBURU IÑAKI ODRIOSOLA / 20

KAGUEN... ANUNTXI ARANA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 17

BERTSO BERRIAK Bertsolaria. IMANOL LAZKANO URANGA / 19

TXANDAN Gorotz melenga. ITXARO BORDA / 20

ZIRTA Txiste bizi naiz eta... JOXERRA GARZIA / 22

ERDIKO KAIERA

IXIAR ROZAS: «Fikzio kontrolatzailea ez zait interesatzen».

MIEL A. ELUSTONDO / 24

BITTOR KAPANAGA Argizaiolak izekirik dirau, haize kontra
bada ere. MIKEL ASURMENDI / 28

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ALEA Diseinua, moda guztien gainetik. GORKA BEREZIARTUA
MITXELENA / 33

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

DONBASS GERRA Inurriak bezala Devaltsebon.

ANDONI LUBAKI / 38

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Herri mugimenduak kultur
enpresaren kudeatzaile. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 43

INGELESAREN MITOAK «Ingelesa ez, euskara da baliagarria
Nafarroan». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44

INTXAURRONDOKO ITZALAK Galindok barrabilak estutzen
zituenekoa. XABIER LETONA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Nolako Errusia da Vladimir Putinek buruan
darabilena? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

BILBAO RÍA 2000

Azken hatsa ematear den ereduaren argi-itzalak


1992an sortu zen Bilbao Ría 2000, EAEko eta Espainiako hainbat erakunde publikoren akordioz, Bilboren eraberritzea azkartzeko helburuarekin. Espekulazioan oinarritutako jardunari esker, sozietateak bere helburuetarako finantzazioa lortu izan du diru publiko askorik erabili gabe, baina orain ataka larrian dago, espekulazio horren beraren ondorioek itota.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Iñigo Azkona

Muntaketa: Dani Blanco

2013KO UDABERRIAN askok ez zuten sinetsiko lerro hauek idazteko unean Bilbao Ría 2000 bizirik egongo zenik. Baina hala da: Bilbon eta inguruan metamorfosi urbanistikoa gauzatze-ko xedez jaioetako enpresa publikoak ez du oraindik bukatutzat eman bere ibilbidea, azken urteetan egoera larrian egon arren. “Herritarrentzat erabilgarria den bitartean aurrera



egingo du Bilbao Ría 2000k”, zioen Angel Nievak, oraindik enpresako zuzendari nagusia denak, Bilboko udal aldizkariari 2011ko apirilean emandako elkarrizketan. Bi urte geroago, kontua ez zegoen hain garbi: sozietatearen administrazio kontseiluko kideek –bestela esanda, hainbat erakunde publikotako ordezkariak– adostua zuten egoeraren azterketa egin eta emaitzaren arabera Bilbao Ría 2000ren likidazioaz erabaki bat hartzea.

2013ko ekainean, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak adierazi zuen sozietatearen itxiera antolatzen hasteko unea zela. Bilbaok esan zuen helburuak bete zirela, baina agortutzat jo zuen erredua, eta gogorazi zuen enpresak 203 milioi euroko zorra zuela hainbat bankurekin (gaur egun 150 milioi dira). “Zor horren zama bertan gauden erakundeon sorbaldaren gainera etor ez dadin neurriak hartu behar dira”, gehitu zuen Bizkaiko agintari gorenak.

Itxieraren alde agertu zen Bilbao, baina jarraitzearen aldekoak gailendu ziren, non-bait. Hori bai, ontziaren pisua arinduta: 2013ko abenduan, Bilbao Ría 2000k bere 21 langileetatik zortzi kaleratu zituen, lan erreforma berria baliatuta. Jose Luis Bilbaok, bidenabar, azpimarratu zuen Aldundiak ez zuela erabakian partaidetzarik izan.

Ordurako, enpresak hainbat proiektu zituen bertan behera utzita diru faltagatik. Gaur egun, izan ere, lan bi besterik ez ditu esku artean: Garellanoko urbanizazio prozesua, Basurtu auzoan, eta FEVEko trenbidearen lurperatzea, Iralakoan. Ustez, horiek amaitutakoan desegingo da sozietatea. Bankuekiko zorrari dagokionez, ehun milioi euro ordaindu beharko ditu 2015 amaitu baino lehenago, eta beste berrogeita hamar 2017an.

Ikus dezagun nola iritsi den Bilbao Ría 2000 egoera honetara.

Espekulazioak funtzionatzen zueneko

Bilbao Ría 2000 sozietate anonimoa da, enpresa pribatua beraz, baina akziodun guztiak erakunde publikoak ditu. Parte-hartzearen erdia

Espainiako Estatuak ordezkatzzen duten erakundeei dagokie (Bilboko Portua, trenbide-azpiegiturak kudeatzen





dituen ADIF, FEVE...), eta beste erdia EAE-koei: Jaurilaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko eta Barakaldoko udalak. Lehen hirurek %15na dute, laugarrenak %5.

Sozietatea oso asmo zehatzarekin sortu zen: 80ko hamarkadako krisialdiaren ondorioz hutsik zeuden lurzorua (industrialak, trenbideak...) berreskuratzea. Bilbao Ría 2000k gidatu du azken hamarkada bietan Bilbon eta Barakaldon hirigintzaren alorrean emandako eraldaketa sakona, zenbait elementu oso enblematico (Guggenheim, Euskalduna jauregia, BEC) beraren ekimenez gauzatu ez badira ere.

Bilbao Ría 2000rena formula berritzailea izan zen: berau osatzen duten parte-hartzaileek, estatuak batez ere, lurzorua ematen diote sozietateari. Kontuan izan behar da 90eko hamarkadaren hasieran Bilbon eta haren inguruan interbentzio premia zuten zoru gehien-gehienak administrazioarenak zirela. Udalek lur horietako batzuk birkalifikatu eta sustatzaile pribatuei saltzen dizkiete, haiek urbanizatu ditzaten; bai oso prezio

Abandoibarraren berreskuratzea izan da, zalantzarik gabe, Bilbao Ría 2000k egindako hirigintza-operazioen enblematicoa. 1998tik 2011ra arte iraun zuen.

onean saldu ere, hiriaren erdian kokatutako eremuak baitira. Birkalifikatzearen ondorioz zoruak hartzen duen gainbalioaren %15, legez, udalei dagokie, eta %15 hori da, hain zuzen, Bilbok eta Barakaldok Bilbao Ría 2000ri egiten dioten ekarpena.

Modu horretan irabazitako diruarekin –Europatik jasotako laguntzak ahaztu gabe–, enpresak hobekuntzak egin ditu premia zuten beste eremu batzuetan. Bilbao Ría 2000k berak aipatzen duen adibideetako bat Bilbo Zaharra auzoan egindako interbentzioa da, Abandoibarrako birmoldaketari esker lortutako irabaziekin ordaindutakoa. “Entitateak erakutsi du gai dela finantza-kontuetan orekari eusteko aurrekontu publikoak baliatze beharrik gabe”, irakur daiteke hainbat urtez sozietateak argitaratu zuen aldizkariaren hirugarren zenbakian. 2001ean idatzitako hitzak dira, higiezinaren aparraldian.

Burbuilak eztanda egin zueneko

Bilbao Ría 2000k martxan dauzkan lan apurretako bat Garellanoko urbanizazioa da.



Enpresaren logotipo ezaguna duen orubetik metro gutxira elkartu gara Basurtuko Auzo Elkarteko presidente Javier Muñozekin, non eta Bilbao Ría 2000k eraikitako Zankonetako Gizarte-etxean.

Bilbo guztiko auzo elkarten federazioko burua ere bada Muñoz. Bilbao Ría 2000ren alderdi positiboez mintzatu zaigu lehenik: batetik, ohiko bideetatik luze joko zuten operazioak azkartzeko tresna baliagarria izan dela; bestetik, birkalifikatzeen bidez lortutako dirua hiriarri onura ekarri dioten proiektuetan erabili izan duela, “nahiz eta ez beti”.

Alde ilunean, espekulazioa jarri du Muñozek. “Bilbao Ría 2000k, lurzoru publikoarekin espekulatuz, etxebizitzaren prezioa igo zedin lagundu du; horrek eztanda egin behar zuen uneren batean”. Eztanda 2007an iritsi zen, ondo jakina denez, eta ondorio latzak izan zituen Bilbao Ría 2000rentzat.

2009an, sozietatea krisiaren hozkadak igartzen hasia zen, eta 180 milioiko kreditua eskatu zuen aurrera jarraitu ahal izateko. Administrazio Kontseiluko presidenteak, Iñaki Azkunak –Bilbao Ría 2000ko presidentea Bilboko alkatea izan da beti– honela deskribatu zuen egoera: “Ez gara lur sailik saltzen ari, baina gastatzeko premia dugu. Edo kreditua eskatu, edo jarduna eten”.

Zorua bai, eroslerik ez

Kredituaren berme modura, Bilbao Ría 2000k bere ondasunik baliotsuena jarri zuen: oraindik saldu gabe daukan lurzorua. Ordurako ez zen hain baliotsua, haatik. Haren tasazioa 280 milioi eurokoa zen, Angel Nieva sozietateko zuzendari nagusiak Bilboko Udaleko EH Bilduren galdera bati erantzunez igorritako informazioaren arabera. Eroslerik ez ordea, ez prezio horretan behintzat.

“Higiezinen burbuilaren eztandak bete-betean harrapatu du Bilbao Ría 2000”, dio Aitziber Ibaibarriagak, talde abertzaleak Bilboko Udalean duen bozeramaileak, “eta

Iberdrola dorrea
Euskal Herriko
eraikinik garaiena da:
165 metro.

EH Bilduko zinegotzi
Aitziber

Ibaibarriagaren
esanetan, haren
inguruko polemikak
ederto erakusten du
zer motatako

hirigintza, “eta noren
mesedetan”, egin
duen Bilbao Ría
2000k. Gogora
dezagun, akordio
konplexu bati esker,
Iberdrolak berezko
prezioa baino hoge
milioi euro gutxiago
ordaindu zituela
dorrea dagoen
orubearen truke.

Azkenik, diferentzia
hori Bilboko Udalak
ordaindu behar izan
dio Bilbao Ría
2000ri.



kolokan jarri du beraren eredua”. Ibaibarriagaren esanetan, egoera horren aurrean jarrera bi daude gaur egun: lehengora bueltatu arte itxarotea, edo duela zortzi urteko parametroak itzuliko ez direla eta Bilbao Ría 2000k honezkero zentzurik ez duela onartzea.

Bigarren hori da EH Bilduk defendatzen duena, hain zuzen. “Bilbao Ría 2000ren esku dauden lurzoruak jatorrizko jabeengana itzultzea nahi genuke, izan udalak izan estatua, eta era arruntean gestionatu daitezela, hau da, gardenago, gaur egun ia ez baitago kontrol publikorik”. Besteak beste, sozietatearen erabaki organoetan parte hartzeko inongo aukerarik ez izateaz kexu da EH Bildu.

tradEBi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradEBi.com



“Bilboko Udalak planteatzen duena, berriz –salatu du Ibaibarriagak–, nola edo hala aurrera jarraitzea da, egitura murriztuz, langileak kaleratuz... sozietateak oraindik dituen lurak saldu arte”. *El Correo* egunkari bizkaitarrak argitaratutako informazio baten arabera, lur horien azalera ia 95.000 metro koadrokoa zen 2012 amaieran; 66.000 Barakaldon eta gainerakoa Bilbon. Ordutik hona orube txiki batzuk baino ez dira saldu, goiko argazkian ageri den Garellanoko inguruan hain zuzen, eta betiere hasierako estimazioena baino prezio txikia-goan.

Zailtasunak zailtasun, Bilbao Ría 2000ren formulari eustearen aldekoa da Iñaki Egaña, PSE-EEren bozeramailea Bizkaiko Batzar Nagusietan. “Sozietateak ondo funtzionatu du, elkarlanak garapena eta kontsentsua erraztu eta hiria eraldatu du. Ez dugu ukatzen krisiak eragindako egoera konplexua dela, baina beharrezkoa da akordioak lortuko dituen organo bat, beste forma bat emanda balitz ere”.

PPk eta EAJk, berriz, ez diete erantzun Bilbao Ría 2000ren etorkizun hurbilaz egin dizkiegun galderari. Ezta sozietateak berak ere.

Zer nolako hiria?

Bilbao Ría 2000ri nekez leporatu dakioke eraginkortasun falta. Esan nahi baita prestutasun handia agertu duela mahai ganean jarritako proiektuak gauzatzen. Egin nahi izan dutena ondo egin dute. Baina hori al zen inguruak behar zuena? Askok uste dute Bilbao Ría 2000ren ekimenez garatutako hiri eredua ez dela egokiena.

Garellanoko urbanizazioa da Bilbao Ría 2000k gauzatuko duen azken proiektu handia. Guztira, 1.150 etxebizitza izango ditu amaitutakoan.

Askotxo, batzuen ustez. Dirua irabazi beharrak ekarri duen eraikitzeak modua ez da beti egokiena, Basurtuko Auzo Elkarteko Javier Muñozen ustez: “Legeak behartzen du eraikitzaileen portzentaje esanguratsu bat babes ofizialekoa izatera, baina dirua salmenta askekoek ematen dutenez, asko eraikitzeak eta auzune dentsoegiak sortzeko joera dago”.

Azken urteetan ikuspuntu kritiko samarra agertu dutenetako bat Elias Mas arkitektoa da, nor eta 1991tik 2005era Bilboko Udaleko Arkitektura Kabineteko zuzendaria izan zena. Haren ustez, Bilbao Ría 2000ren jardunean ez da sumatzen lurraldearen pertzepzio globalik, ez haren okupazioarekiko irizpide argirik. Aitzitik, sozietateak eskura izan dituen aukeren arabera jokatu duela uste du Masek. Arazoa da “aukerazko espazio” horiek –halaxe izendatuta ageri ziren Bilbo Metropolitanoko Lurralde Plan Partzialean–, euren kokapen eta tamainagatik, berebiziko garrantzia zutela eskualde osoaren antolamenduan. Azken finean, Elias Masek pentsatzen du Bilbao Ría 2000k lurralde plangintza baldintzatu duela. Kontuan hartzekoa da aipatutako Plan Partziala indarrean sartu zenerako, 2006an, lan asko amaituta edo abian zituela Bilbao Ría 2000k.

Masen iritziz horrekin bat datoz, oro har, Andeka Larrea eta Garikoitz Gamarra, *Bilbao y su doble* (Bilbao eta beraren doblea) liburua-aren egileak. Baina harago doaz: Bilbon emandako eraldaketa espazio publikoaren pribatizazioz jotzen dute. “Herritarrek ez dute parte hartzen Bilbao Ría 2000ren erabakietan”, esan zuen Larreak ARGIAri emandako elkarrizketan (2.331. zbkia.), “eta bestalde, Abandoibarra bezain espazio garrantzitsuan aisialdirako eta kontsumorako lekuak egongo direla erabakitzean, espazio hori pribatizatu egiten da nolabait, bestelako erabilera batzuk galarazten direlako”. Larrearen iritziz, hiri-gintza da gatazka soziala desaktibatzeak agintariek daukaten moduetako bat. Eraginkorrenetakoa, izan ere. ■

.eus domeinua Korrikarekin batera dator

IZAN eusKAHALDUN!

Martxoaren
19tik 31
bitartean

29,95
euro

eskuratu zure
.eus domeinua
prezio berezian

Eskaintzaren informazioa:
www.domeinuak.eus



gure domeinua

«UPNk bultzatu duen ikuspegia da hobbyrako sorkuntza»

Boteretsuek badakite imajinatzeko gaitasuna duen pertsonak arazoei aurre egiteko eta errealtatea interpretatzeko baliabide propioak dituela, eta hori ez zaie interesatzen, noski.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Nola hasi zen zure harremana antzerkiarekin?

Txikitatik datorkit. Beti kontatzen dut nola amak hiru anaiok antzerki obra bat edo pailazoak ikustera eramaten gintuenean, ni berehala algaraka hasten nintzen pozik. Haur eskolako urteak Izartegin eman nituen eta handik ditudan oroitzapen bakanetako bat da egunero mozorroen txokora eta eskuekin horman margotzera joateko irrikaz egoten nintzela. Geroago, San Fermin ikastolan, 6 bat urterekin neuk eskatu nion amari gorputz adierazpena eta antzerki tailerrera eramateko. Margogintza, musika eta antzerkia, bereziki, oso gustuko izan ditut beti.

Zergatik lehenbizi Arte Ederrak eta gero Nafarroako Antzerki Eskola?

Oso garbi neukan antzezlea izan nahi nuela, baina Arte Ederren fakultatea ikusi eta gustatu zitzaidan. Nire lagun batzuek joan behar zuten eta ni ere animatu nintzen. Hura bukatutakoan Antzerki Eskolara etorri nintzen. Oso pozik nago. Ez dut neure burua ikusten artista plastikoko handi baten gisan lanean, baina han ikasi nuen guztia oso baliogarria egin zait aktore lanerako. Musika ere asko interesatzen zait. Saxofoia eta txistua jotzen ditut. Urte askotan txaranga eta fanfarreetan jo izan dut eta antzerkiko muntaia batzuetan ere erabili izan dut. Musika ikastea eta musikarekiko sentsibiltate hori lantzea oso garrantzitsua da. Edozein herritarrek jaso beharko luke oinarritzko formakuntza, batez ere musikaz gozatzen ikasteko. Zeinen ederra litzatekeen kultur hezkuntza eta sormena baloratzen dituen jendarteak lortzea!

Antzerki ikasketak motz gelditzen dira gaur egun?

Antzerki eskola bakoitzak badu bere estiloa, bere bidea, eta nik uste dut, oro har, antzerki

ikasketa guztiek oraindik lehenagoko eskematan segitzen dutela. Beste diziplinetan dauden ikastaroak, graduondoko ikasketak, laborategiak... antzerkigintzan falta dira. Uste dut artearen munduan zutabe zurrusetatik gero eta gehiago ari garela aldentzen. Malgutasun horren adibideak ditugu arte fakultateetan egiten diren diziplina arteko mintegiak. Horiek, azken finean, gure bizimoduaren isla dira. Arteak gero eta likidoagoa da, bere zutabeak gero eta likidoagoak dira, egiten diren fusioek, performanceek eta nahasketek erakusten duten bezala. Adibide on bat da Dantzaz konpainiak Donostia 2016ko programazioaren barruan antolatutako mintegiak: dantza da bizkarrezurra baina hainbat alorreko pertsonen elkarlanean: futbolariak, sukaldariak eta abar. Sorkuntza eta zehatzago antzerkia bada kosmosa ulertzeko bide bat. Egoera imajinarioen bidez egoera ezberdinak bizitzeko aukera eta mundua ulertzeko baliabideak ematen dizkit niri eta Arte Ederrak ikasi izanak izugarri laguntzen dit. Beste sormen iturrietatik edateak errekurtsu gehiago ematen dizu beti. Prisma irekitzen dizu gauzak pentsatzeko moduan.

NORTASUN AGIRIA

Oier Zuñiga Pérez de Urabain, Iruñean jaioa, 1986ko azaroaren 3an. Aktorea, margolaria, diseinatzailea, musikaria eta hainbat herri mugimendutako partaidea. Arte Ederrak ikasi zituen EHUn eta antzerkigintza Nafarroako Antzerki Eskolan. 2009an Segiren aurkako sarekadan atxilotu eta urtebete eman zuen kartzelan. Iazko ekainean absoluzioa eman zieten auzi horretan epaitutako berrogei gazteei. Sortzaile belaunaldi berri bateko artista integrala.



OIER ZUÑIGA

Laborategiak diozu Ander Lipusek eta Artedramak egiten dutenaren ildotik?

Artedramak antolatzen dituen ikastaroak antzerkigintzara soilik daude bideratuta. Oso beharrezkoak ikusten ditut halakoak ere, oinarrizko formakuntza ikasi eta entrenatu behar delako, baina gero norberak hartzen duen bidea oso garrantzitsua da eta polita litzateke baliabide horiek guztiak modu kolektiboan landu ahal izatea. Madrilen Arte Ederren zirkuluan jarri dute martxan bi urteko masterra artista integralentzako. Hor diziiplina guztietako profesionalak daude eta ikasleek denetik probatzen dute.

Gustura eginen zenuke?

Bai, baina 12.000 euro balio du.

Nola dago antzerki ikasketen homologazioaren gaia?

Antzerkigintzan askotan gertatzen da eskola pribatuak eta akademiak daudela, homologaziorik gabe, bakoitza bere bidearekin. Gaur egun gehienak eskola pribatuak dira. Sare publikoan, Espainiako Estatuan, Madrilgo RESAD, Bartzelonako Institut de Teatre eta beste zortzi bat eskola gehiago daude, besterik ez. Heldu den urtean zabalduko da Euskadiko Arte Eszenikoen zentroa Bilbon. Nafarroako

Antzerkia

“Antzerkia arterik metafisikoena da nire ustez, aldiro ari zarelako fikziozko errealitateak eraikitzen. Fikziozkoak baina hemen eta orain existitzen direnak. Antzezten dituzunean hor daude. Eta antzezten dituzun bakoitzean desberdinak dira. Antena guztiak piztuta edukitzea eskatzen dizu horrek. Beti erne, etengabeko formakuntzan egon behar duzu”.

Antzerki Eskola askotan saiatu da bere ikasketen homologazioa eskuratzen baina ez du lortu. Nafarroako Gobernuaren aldaketa batekin etorriko litzateke aldaketa hori, inoiz etorzekotan.

Eta euskarazko antzerkigintza nola dago?

Hizkuntza minorizatua gara bortxaz, eta horrek eramaten gaitu sorkuntzan, oro har, erresistentzia puntu batetik abiaraztera. Euskarazko antzerkia gero eta gehiago egiten da, azken urte hauetan, ez behar hainbeste ziurrenik, baina askotan produktua ez da ona. Ongi dago saiatzea eta garrantzitsua da mugimendua egotea eta aritzea gelditu gabe, baina uste dut sortzaileok gehiago exijitu beharko geniokeela geure buruari. Ematen du euskaraz egite hutsa-gatik jada ongi dagoela eta badira beste kontu asko: zer nolako sorkuntza egiten dugun, zer maila duen, norentzat egiten dugun, zer helburrekin... Ikusten dira erdipurdiko lan batzuk euskal komunitatean izugarritzko oihartzuna dutenak. Eta hori lortu beharko lukete kalitatearengatik, ez euskaraz egoteagatik. Gauza bera gertatzen da liburuekin. Ongi iruditzen zait mundu guztiak aukerak izatea bere lanak argitaratzeko, baina non dago muga? Guztiak maila berean daude? Nik hor zalantza asko ditut. Jakin beharko genuke bereizten.

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

15€
bidalketa barne
Euskal Herrian

Mundua ulertzeko
beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

argia

Egin ezazu eskaera:

☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Etxe, eskola eta elkarreteetarako opari aproposa

Halako nahasketa gertatzen da Nafarroan antzerki amateur eta profesionalarekin. Badira muntaia amateur batzuk oso onak direnak, baina amateurrek, eta kultur-etxe askotan horiek programatzen dituzte profesionalak beharrean. Antzerki amateurrek sortzen du antzerkiarekiko interesa eta mugimendua, eta meritu hori du, baina tokia denontzat egon beharko luke.

Norena da errua?

Errua programatzaileena da eta kulturaz egiten den kudeaketarena. Hori orokorra da. UPNk bultzatu duen ikuspegia da hobbyrako sorkuntza. Horren adibide ditugu musika eskola guztiak. Oso polita da gure seme-alabak medikuntza ikasi eta gainera abesten badu edo biolina jotzen badu, baina arazoa dator seme-alabak biolin-jotzailea izan nahi duenean.

José Ignacio Wert Espainiako Kultur ministroak esan du Arte Hezkuntzak eta aukerako ikasgaiek distraitu egiten dituztela ikasleak.

Flipantea da hori. Juxtu kontrakoa da. Sorkuntzak baliabideak ematen dizkizu azaletik harago dauden geruza guztiak irakurtzeko. Oso topikoa da, baina egia borobila: arteak kontzientziak pizten ditu eta mundua ikusteko beste prismatiko batzuk ematen dizkizu. Bote-rean daudenei, noski, ez zaie hori interesatzen. Imajinatzeko gaitasuna duen pertsonak arazoei aurre egiteko baliabideak ditu. Arte Ederretako irakasle batek kontatu zigun nola behin Apolo XIII espazio-ontzian arazo bat sortu zen eta Houstonera deitu zutenean soluzio bila, handik esan zieten buruari eragiteko eta inguruan zituzten gauzeekin moldatzeko. Eta horrela sortzen da sorkuntza lana. Arriskatzeko eta sortze-saiatzeko horretan dago kokka.

Hau izan al da zure kasua? Kontzientzia horrek eraman al zaitu Segi mugimenduko partaide izatera ala gazte garaiko kontua izan da?

Denetik pixka bat, baina ez da txorakeria izan eta ez naiz ezertaz damutzen. Konplikaturik da. Iruñean jaio nintzen familia abertzale batean. Aita euskaldun berria zen eta txikitatik jaso nituen herri honekiko maitasuna eta kezka. Honek kontzientzia piztu zidan eta ingurura begiratzea aski da hemen arazo politiko bat dagoela ikusteko. Ez diet buelta asko ematen teoria politikoei. Halako mugimenduetan inplikatzera eraman nauena injustizia izan da beti. Horregatik beti ibili naiz, eta egun ere banabil, herri mugimenduetan oso sartuta. Naizenaren isla da hori guztia. Hala ere, lehentasun emozionala beti sorkuntzan eta artean izan dut.

2009an, atxilotu eta urtebete kartzelan eman zenuen Soto del Realen eta Herrera de la Mancha. Zer nolako bizipena izan zen hura?



Euskarazko antzerkia

"Euskarazko antzerkia gero eta gehiago egiten da, baina askotan produktua ez da ona. Ongi dago saiatzeko eta garrantzitsua da mugimendua egotea eta aritzea gelditu gabe, baina nik uste dut sortzaileok gehiago exijitu beharko geniokeela geure buruari".

Zerbait ezabatzeotan atxiloaldia, inkomunikatuta egon nintzen tarteak, litzateke. Burutik, bihotzetik eta bizitzatik kenduko nuke niri eta jende askori gertatu zaiona. Kartzelan gertatzen dena bada bizitzaren metafora absurdu bat. Botere piramideak oso markatuta daude, bizitza errealean bezala, baina eremu mugatu hartan: diru pixka bat dutenen eta ez dutenen arteko aldeak ikaragarriak dira, gizonen arteko indar eta botere harremanak ematen dira, sexualitateaz edo joera sexualez hitz egitea pentsaezina da... Dena da oso bortitza, oso muturrekoa. Egoera horretan bertan biziraupena bihurtzen da lehentasun. Niri gogorrena egin zitzaidan nire borondatearen aurka hor egon behar izatea. Une lasaigoak ere baziren. Erretiro espiritual bezala hartzen nuen batzuetan eta sorkuntzarako tarteak bilatzen nituen. Soto del Realen oso baliabide gutxi genuen, debekatua zegoen dena. Pentsa ezazu koloretako orriak ere debekatuta genituela. Beste preso batzuekiko tratuen bidez koloretako arkatz batzuk eskuratu eta lanean hasi nintzen nire margotze adieraren muinera iristeko asmoz.

AZKEN HITZA

Antolatu

“Sorkuntzarako, ikerketarako, produkzioarako eta banaketarako espazioak zabaldu behar dira. Ekimen isolatuak daude eta gehienak pribatuak, partikularrak. Badaude sareak, baina gutxi, eta horrez gain gaizki programatzen da Nafarroan. Aurreko bi hamarkadetan ikaragarriko kultur-etxeak egin zituzten, baina hutsik daude. Hori dena antolatu beharra dago. Iruñea hiri gris bilakatu da agintari hauekin, baina agian horregatik, mugimendu berriak eta oso interesgarriak sortzen ari dira: Jazar artisten topalekua, Inmediaciones dantza jaialdia, Ikuspuntu zine dokumentalaren jaialdia... Sakon eta interesgarriak, baina gehienetan proiektio nahikorik gabe”.



Margotzearen esentziaraino nahi nuen iritsi. Neure hizkuntza plastiko propioaren bila ibili nintzen urte osoa. Eta gauza arinagoak ere egin nituen. Eskutitz guztietan marrazkiak bidaltzen nituen eta jende askok gordeta dauzka.

Zer gogoeta egiten duzu zure jarduera politikoaz?

Ez dut sentitzen bereziki politikan ibili naizenik, dena politika delako, azken finean. Ez dut esaten mundu guztiak etengabe lubakietan edo lehen lerroan egon behar duenik baina ardura izatea normala da. Eta are gehiago sorkuntza alorrean. Obra bat edo artelan bat egiten dugunean, jendartean gertatzen den zerbaitek ari gara erakusten edo salatzen.

Lau urte epaiketaren zain eta berrogei auzipertuak absolbituta. Nola bizi izan zenuen hori?

Emozionalki bortitzena epaiketako urte hori eta beste urte batez itxaron behar izatea izan zen. Horrek hunkitu ninduen gehien. Denbora guztian ari zara pentsatzen kartzelara joan beharko duzun ala ez eta zenbat denborarako. Eta handik ateratakoan jarraitu ahal izaneren ote duzun zure proiektuekin. Asko ginen eta uste genuen denak ez ginela libratuko. Azkenean suertea izan genuen. Absolbitu gintuztenean leihoak ireki ziren nire bizitzan.

Epaia etorri zen Antzerki Eskolako ikasketen amaierarekin batera.

Bai, eta amaierako muntaiaaren estreinaldiarekin, *Idiotas contemplando la nieve*. Niretzat eta taldeko beste kideentzat ere, arrazoi desberdinegatik, berezia izan da lan hau. Eskola bera kinka larrian egon zen, itxekotan, honen aldeko apustua egin zuenean.

Ongi jaio eta bikain jarraitzen du. Orain otsaila eta martxoan itzuli zarete eszenatokira.

Bai. Ekainean pozik gelditu ginen eta berriro programatu dugu. Ahoz aho mugitu da eta are-

Kartzela

“Badakit oso utopikoa dela eta agian anarkista baina nik kartzelak suntsituko nituzke. Ez dute ezertarako balio inorentzat, ezta emakume bat hil duen gizon batentzat ere. Kartzela ez da erremedioa. Ergelkeria hutsa da. Kasu askotan pertsona amorrut betetzen du gehiago. Helduentzako haurtzaindegi kutre bat. Ez du logikarik. Surrealista da. Dena da ezezkoren ezekoa”.

toa bete-betea egon da. Joan den asteburuan, adibidez, 700 pertsona baino gehiago egon ziren gu ikusten. Testua oso sendoa da, zoragarria, Alejandro Ricano idazle mexikar gaztearena, eta zuzendaritza lan ikaragarria egin du Javier Pérez Eguarasek. Horretaz gain testuak duen gakoa da egungo jendartea, oro har, erretaratzen duela. Askotan gure ametsak gauza materialetan errotzen ditugu, albo batera utzita gure sentipenak, harremanak eta benetako balore garrantzitsuak. Baina halako batean elurra dator eta hari begira sentitzen dugu berriz hutsetik has gaitezkeela. Obra honek bukaeran itxaropenerako ate bat zabalik uzten du eta niretzat pertsonalki hala izan da.

Zer aukera dituzue muntaia honekin?

Gure asmoa da Iruñetik kanpo mugitzea eta horretan dabil eskola produktore eta banatzaile gisa, baina arazo handiak daude. BEZa esate baterako. %21eko BEZak nabarmen garestitu du antzerkia. Oso diru gutxi mugitzen da programatzeko eta ordaintzeko. Sektorea ahul dago. Nafarroan oso eskasa da dagoena. Edo telebistako aktore ezagunak ekarri edo talde amateurrak kontratatzen dira. Besteentzako ez dago deus. Egia da EAEn ohitura handiagoa dagoela antzerkia programatzeko eta jendeak ere ohitura handiagoa duela antzerkira joateko. Niri interesatzen zaidana da obra egitea eta jendeak ordu eta erdiko magia kapsula hori hartzeko aukera izatea.

Bizi daiteke antzerkitik?

Batzuk bai. Zailtasun handienak gazteok ditugu. Gaur egun, ni antzerkia egitetik soilik ezin naiz bizi. Diseinu lanak eta marrazkiak egiten ditut, beste batzuek klaseak ematen dituzte... Zaila da bizirautea, baina ez nau kezkatzen. Apustu hori aspaldidanik egina dut eta gainera gaur egun langile asko gara modu prekariora bizi garenok. ■

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

FINALA

MARTXOAK 21, larunbata, 17:30ean

GASTEIZ, Printzipal Antzokian

Gai-emaila: Aintzane Irazusta Arzallus

Aurkezlea: Marta Ugarte Abasolo

Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eu, txapelketako aurreko 6 saioetan, Gasteizko Amaia zentroan, egun berean bertan. Bazkideak 8€, 16 urtetik behera 5€, gainerakoak 12€

www.bertsozale.eus/araba



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Oihane
Perea
Perez de Mendiola



Zigor
Enbeita
Zugadi



Iñaki
Viñaspre
Simon



Xabi
Igoa
Eriz



Ruben
Sanchez
Bakaikoa

Babesle nagusiak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net



Vital gizarte ekintza



artepan

Udala:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Antolatzailea:



argia

SAGAR MOREEN IRAULTZA HERNANIN

«Beldurra lekuz aldatuko dugu!»

Sagardotegi garaian jazotzen diren (eta eragiten dituzten) eraso sexista, baboseo eta oro har jarrera matxistak salatu eta kaleak emakumeek berreskuratzeko manifestazioa egin dute martxoaren 14an Hernaniko kaleetan.

| KATTALIN MINER |

ORDUA ez zen ohikoa, egoera ohikoa ez den bezalaxe. Ilunak kale basatiak hartu zituenen hasi zuen manifestazioak martxa. Ehunka emakume azaldu ziren, antolatzaileek eskatu gisan, beltzez eta aurpegiak estalita. Sentsazio urduria nabari zen parte-hartzaileen artean, izan ere ondo zekiten zer espero zuten taberna arteko kale giroan, emakume hernaniar eta ez hernaniarrak ohituta baitaude urtean zehar jada hain emakumezkoenak ez diren kaleak sagardotegi garaian nola desjabetzen dizkieten ikustera.

“Ez gara probokazioetan eroriko. Helburua manifestazioa bukatzea da, eta arazorik izanez gero, abisatu alboetan izango dituzuen segurtasun arduradunei”. Bazirudien, une batez, gerra hastera zihoala, baina hainbat urtetan garai hauetan aldarri feministak txertatzen ibili denak ederki daki zer datorkion gainera.

Batukadak gidatuta martxak Andre Kaletik hasi zuen bidea, egun osoan zehar tragoa esku artean lasai ibili zutenen harridurarako. Askok ongi ulertzen ez bazuten ere, nabari zuten ez zela hain kontu ludikoa danborren atzetik zetozen horiena, eta oihuak hasi ahala argitu zitzairen manifestazioaren zioa. “Ez, ez, ez, erasorik ez!”, “kaleak, gauak, geureak dira”, “matxirulo, entzun, pin, pan, pun!” eta halakoekin hartu ziren lehen kaleak.

Borroka feministaren aldeko oihuak ere ez ziren falta izan, baina edonola ere, oihuak ez ziren behingoagatik oihu etsituak ezta leloa jarraitu beharagatik errepikatutakoak. Nabari zen ozen eta garrasika aritzeko beharra, eta hala, minutu gutxitan, sagardotegi garaian kaleak izan ohi duten itxura erabat aldatu zen.


Izan ere, eraso sexistez gain, bada espazioaren erabileran desoreka handi bat, jai-giro, taberna edota kaleak bi taldetan banatzen baitira halakoetan: “Ezin kabitu” dabiltzanak



Larunbatean, lekurik ez izateaz nazkatutakoek ere erdigunea lortu zuten

eta zuzenean, lekurik ere ez dutenak. Joan den larunbatean, lekurik ez izateaz nazkatutakoek ere erdigunea lortu zuten, une batez bada ere, eta kabitu ezinek pauso bat atzera egin behar izan zuten tarte batez.

Oro har manifestazioak lasai egin zuen bidea, eta antolatzaile eta parte-hartzaileen artean sentsazio gozoa nabari zen jasanezina den giro ezagun hori minutu batzuek desitxuratu izanagatik behintzat. Kaleak berreskuratzeko ematen duen ahalduntze sentsazio horrekin ekin zieten amaierako hitzei, eta argi egin zuten autodefentsa feminista erabiltzearen aldeko deia, eta beldurtuta bizitzeaz eta ibiltzeaz nazkatuta zeuden emakumeen oihuak argitu zuen etorkizuna: “Beldurra lekuz aldatuko dugu!”. ■





DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Desberdintasunen aroa

AZKENALDIAN ASKO zabaldu da desberdintasun ekonomikoen gaineko kezka. Ekonomialari ezagun ugari —Thomas Piketty delarik horien arteko ikur mediatico goren— beren azterketen ildo nagusia arlo horretara bideratu du. Gaur egun, errentaren eta aberastasunaren desberdintasunek duten goranzko joera nabarmena eztabaida ekonomiko eta politikoaren erdigunean dago.

Desberdintasunen igoera aparta ematen ari da Europar Batasuneko hegoaldean, batik bat 2008an krisi ekonomikoa lehertu eta bertan errezeta ekonomiko ortodoxoak indarrean ipintzen hasi zirenetik. Erreskateen ordainetan ezarritako austeritate politiken ondorioz herrialdeok aspaldian ezagutu gabeko zentzugabezia sozialak ezagutzen dituzte egun. Espainiako Estatuaren kasua da aipagarrienetarikoa, izan ere, bertan eman da EBko

Global Wealth Report 2014 txostenak hauxe dio: Espainiako Estatuako %1 aberatsena Estatuako ondarearen %27aren jabe da, eta %10 aberatsenak ondare guztiaren %55,6 eskuratzen du. Beste muturrean %30 txiroenak aberastasunaren %2,3 soila baino ez dauka

desberdintasunen igoerarik handiena krisiaren testuinguruan, eta gaur egun 28 estatuen artean bigarrena da errenta desberdintasunen tarteari dagokionean, Letoniaren atzean eta Grezia, Portugal eta Irlandaren aurretik. Desberdintasunak neurtzeko erabiltzen den Gini koefizientea igo da Estatuan 2006ko 0,313 izatetik 2013ko 0,350era, eta garai horretan bertako biztanleriaren %20 aberatsena eta %20 txiroenaren arteko errentaren tarte 6,3 bider handiagoa izateraino heldu da, horretan ere Espainiako Estatuak “txapelduna” da EBko herrialdeetan, Eurostaten arabera.

Espainiako Estatuako desberdintasunen irudi kaskarra areagotu egiten da aberastasunaren banaketa aintzat hartuta, alegia

ondare ekonomikoa oinarri duen neurria, zeina egokiagoa dena herrialde bateko desberdintasunen argazkia egiteko Pikettyren esanetan. *Global Wealth Report 2014* txostenak hauxe dio: Estatuako %1 aberatsena estatuko ondarearen %27aren jabe da, eta %10 aberatsenak ondare guztiaren %55,6 eskuratzen du. Beste muturrean %30 txiroenak aberastasunaren %2,3 soila baino ez dauka.

Interesgarria da Espainiako Estatuako klase ertainaren uzkuertzea bistaratzen duen datua: errenta maila ertaina duen biztanleriaren %40 aberastasunaren %20 eskasaren jabe da.

Errenta desberdintasunek, Estatuak baino lausoagoak diren arren, Hego Euskal Herrian ere handitzeko joera hartu dute krisi garaian. EAerako Jaurlaritzak egindako 2014ko Gizarte Beharren Inkestak 2008 eta 2014 aldian bertako %10 aberatsenen batez besteko sarrerak %1,1 igo ziren eta, aldiz, errenta apaleneko biztanleriaren %30aren ekonomia sarrerak %4 jaitsi ziren. Beraz, hegoaldeko hiru lurraldeotan biztanleriaren zati esanguratsu bat beheranzko higidura nozitzen ari da krisiarekin. Gini indizeak ere joera aldaketa erakusten du EAEn, izan ere, 2012 urtean beheko marka izan ondoren (0,253), artean beheranzko joera izan arren, ondoren igotzen hasten da 2014ko 0,271raino. Espainiako Estatuako zenbaktik oso atzean egon arren, arduratzekoa da aspaldiko partez joera aldaketa egotea.

Laburbilduz, austeritate politikek ekonomia desberdintasunak indartu egin ditu Europako hegoaldean, modu berezian Espainiako Estatuan eta, leunago bada ere, baita euskal lurraldean ere lehen aldiz. ELGak (OECDk) onartzen du errenten desberdintasunen igoerak Europan zeri-kusi zuzena duela “barne debaluazioaren” prozesuarekin, soldaten banaketa are desberdinagoa ekarri baitu horrek. Gainera Estatuaren birbanaketa gero eta atzerakorrakoa bihurtzen ari da murrizketa gogorrek direla tarteko. Azken buruan, austeritate politikak kohesio sozialean pitzadura sortzen ari dira europar “eredu soziala” koloka ipintzeraino. ■

BERTSO BERRIAK

Bertsolaria



Imanol
Lazkano Uranga



I

Gazte berri bat sartzen denean
bertsoaren zerbitzura,
lehenengo langa aurkituko du
entzulearen zentsura,
esaten dena, kantaera ta
jende aurreko itsura,
izarretara gidatuko du
edota bota putzura.

II

Lehenengo koska gainditzeko gai
bada landare berria,
saio batzuek eskaintzen ere
hasiko zaio herria,
baina aldiro eman nahi badu
eskatzen zaion neurria,
eguneroko lana ta lana
izango du oinarria.

III

Herriak berak gidatu arren
landaretik izarrera,
une batean ezin du ahantzi
prestakuntzaren jarrera,
bestela berriz aurkituko du
entzulearen barrera.
Amaitzen ez den ikasketa da
bertsolarien karrera.

IV

Gerora ere entzulegoa
beti epaile serio,
ordura arte egindakoak
ia ez dio balio.
Aldi oroko sorpresa nahi du,
gehiago eskatzen dio,
horregatikan saio bakoitza
bihurtzen da desafio.

V

Hanka puntetan gabiltza beti
ez zaigu uzten pausatzen,
etenik gabe geure buruak
eta bertsoak osatzen,
munduko kirol aberatsena
ari baikara gauzatzen,
hizkuntzarekin jolas eginez
goza araziz gozatzen.

VI

Kirol horretan etenik gabe
banatzen dira sariak,
une oroko estimu gozo
eta txalo ugariak,
beraiekiko ditugun zorrak
hain direnez nabariak,
mundu horrekin ez inoiz ahaztu.
Animo bertsolariak!

DOINUA: Ari naizela, ari naizela.

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Pertsona helburu

GOGORATZEN DUT, orain urte batzuk, eskuineko abertzaletasunaren guru batek, garaiko ezker abertzaleari egozten ziola kanpoko ideologiak –sozialismoa– Euskal Herrira ekartzea, berak babesten zuena bertako, eta berezko gauza balitz bezala.

Izan ere, daukagunaren aldekoek uste arazten digute eurena ez dela ideologia, errealitatea baizik. Indarrean dagoena “horrela delako” da, hausnartu gabea, aldaezina. Eta kito. Zerbait aldatu nahi baduzu, orde, ideologia inposatzen ari zara.

Gizarte klasikoaren hastapenetan dago, jada, liberalismoaren babesleek erabiltzen duten ustezko gizabanakoaren goraiipamena. Azkenaldian entzuten ari garen bezala bertakoen ahotik, “pertsona helburu”.

Gezur galanta. Kapitalismoaren jendartean gizabanakoa ez da inoiz helburua izan, baliabidea baizik; eliteek, botere ekonomikoa duten gutxi batzuek, kapitla pilatzen jarraitzeko erabiltzen duten tresna. Merkantzia. Objektu hutsa.

Horregatik, norbaitek pertsona helburu duela esaten badit (ikasle ohia izanda ere) muturra okertzen zait, zerbait ezkututzen ari dela uste baitut. Izatez, sistemara era erosoan egokituta dauden pertsonak formatzea eta garatzea duela helburu iruditzen zait, ez besterik.

Osasuntsu, enprendedore, baikor, konformista, akritiko eta bere buruaren jabe dela uste duen pertsona da inperialismoak behar duen gizabanakoa. Berekoia, lehiakor, nahimena ahalmen bilaka daitekeela uste duen “errendimenduaren subjektua”, oraingo pentsalariek dioten lez.

Neoliberalismoaren pentsalariek sinestarazi digute

hori dela gizabanako aske izateko modu bakarra: bizitza erdia ekoizten, eta beste erdia erosten dabilena. Langile eta kontsumitzailea behar dute. Merkatuaren dimentsio-bakarrean protestatu gabe iraun ahal izatea, pertsonaren helburu.

Eta denok, aske izan nahian, nahi dugun guztia lortzearen esklabo bihurtu gara: “Hau askatasun paregabea!”, ezin da denbora galdu, dena lortu nahi dugu, eta komenigarria egin zaigu sinestea edozer lor dezakegula, benetan nahi badugu.

“Nahi izatea ahal izatea da”. Hona hemen berriro modan jarri zaigun adierazpen tamalgarririk eta arriskutsua. Denak izan behar du helburua, jarraipena, eta lorpen bat; eta bukaezinako aurrerapenaren espiralean kateaturik gauzkate, etekina atera nahiaren gupil zoroa ezin etenda. Pertsonak ez gara helburu, eta gainera, helbiderik gabeko izaki gara. Hau komeria!

Ametsak, amerikarrak eta beste guztiak, ametsak besterik ez direla noizbait konturatuko gara. Ala ez? ■

Ezin da denbora galdu, dena lortu nahi dugu, eta komenigarria egin zaigu sinestea edozer lor dezakegula, benetan nahi badugu

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Gorotz melenga

AUZOA ez dute patitzen, beltzak eta arbiarrak partida dituzte, zainetan plazaratzen diren biktima gaizoak dira, larderiazko aroaren etorrera iragartzen digute gaiztoki: ikusiko duzue zer gertatuko zaiuzuen gobernuan diratekenean... mehatxuak eta izuak banatzen dituzte ahapez, ordezkatzeko duten alderdia ez delako, jada ederki banalizatua den arren, arras katolikoa –errateko moldeak da, noski–. Euskaldunak dira, fededunak, Frantziaren iragan distiratsu baten nostalgikoak, min eta zauri guztiak beti besteren erruz datozela errepikatzen zinpuztzen direnak!

Errobi eskualdean, semea FNko zerrendaburu duen emazteari begira nagokio. Oilo koloka urgulutsu eta egoskorren antzera bermatzen zait aitzi-nean: ez dut bere gorrotoa ulertzen, dena dauka zoriontsu izateko bizitza ezer ez duen lagun protsimoaz jeloskor higitu gabe. Kopeta apaltzen dut eta, ezintasunaren uholde itogarria bailitzan, negar gutizia nigan igotzen nabaritzen dut. Gorotz melengak zikintzen ez duen izkina izpirik ez baita gehiago herra zilegi bezain lege dagoen bazter hauetan.

Irabazten utziko al ditugu? ■



Anuntxi Arana

♦ ANTROPOLOGOA

Kaguen...

ZEBERION KONTATUA, errotari batek *"Mekaguen la Señora de Anboto"* esan ei zuela eta *Señorak* errota paratu egin ziola; harik eta gizona, apez batek ondo aholkatu, hartzulora joan zitzaion arte, barkeske. Eta errota berriz abian ezarri ziola *Señorak*, egiazko handiei doakien magnanimitateaz.

Bidarrain, mendi-mendian den Harpeko Saindura joan zen apez bat, eta hangoa ikustean esan omen zuen: "Hau deus ez duk, hau kaka Saindia duk!". Eta etxeratutakoan sekulako beheitikoa jauzi zitzaiola. Saindu hura egiazkoa zelako frogatzen, gaineratu zuen kontalariak, irriz. Logikoa: misiolari batek paganoen aurrean jainko-irudiak apurtu eta bertan suntsitua ez bazen, idolo faltsuak zirela ezagutzen zen.

Jesukristo munduan gaindi ibiltzen zen garaian, Bithirinan iragan zen, Azpineko bidean, omen. Gizon bat atzeman zuen, bere orga-otea uzkaileatik eta saihetsean otoizka; Jesukristo aitzina joan zen, kasurik egin gabe. Eta gero beste bat atzeman zuen,

Frankismo pean delitua zen biraoa, eta Tuteran aldeko mandazainak sakre zaleak, inon baldin baziren. Baten bati gurdia uzkaileatik eta kaguendioska hasi zen. Aguazilak entzun, 25 pezetako isuna ezarri eta herriko etxetik pasa zedila, ordaintzera

sakre-mandoka bere orga ezin altxatuz ari; eta hura lagundu zuen. Otoitz ari zena ez zuen batere lagundu, zehaztu zuen kontatzaileak, entseatzen ez dena ez duelako Jainkoak laguntzen –eta bost axola biraoa... Istorio hau entzun zutenek ere barre egin zuten.

Frankismo pean delitua zen biraoa, eta Tuteran aldeko mandazainak sakre zaleak, inon baldin baziren. Baten bati gurdia uzkaileatik eta kaguendioska hasi zen. Aguazilak entzun, 25 pezetako isuna ezarri eta herriko etxetik pasa zedila, ordaintzera. Heldu da mandazaina leihatilara eta 100 pezetako billete bat ateratzen du. Funtzionarioak, ez duela xeherik atzera emateko eta biharamunean itzultzeko 25 pezetarekin. Eta besteak orduan: "Kaguendios, kaguendios eta kaguendios: kobra dena!".

Hitzetik hortzera erabili izan dira biraoak gure ezaupidean, *cool* eta alaiki maiz. Eta konplizitate zerbait sumatu ohi da blasfematuaren eta blasfematzailearen artean, bataren errekonozimendua balitz bezala bigarrena, biraoa intrintsekoa zaiolako erlijioari. Aldatuko al zaizkigu gauzak orain eta, bakeagatik, blasfemiak berriz zigortuko? Zein zigortu, ordea? Denak ala bakarrik defendatzaile armatuak dituztenen kontrakoak? Eta, trukean, lasai pikutara bidali Anbotokoa, Wakan-Tanka, Xangó eta konpainia guztia, haien jarraitzaileak antz eta sentiberak badira ere.

Araiz, gaia ez da gehiago aktualitatera etorriko. Baina beldurrak bere lan dongea eginga du eta autozentsuran gaude. Ez dezala bederen legeak berma. ■




- Abentura kirolak
 - Ezkonurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidalak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com




Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Txiste bizi naiz eta...

BADOAZ BI EHIZTARI basoan barrena, eta, halako batean, bietako bat ziplo erortzen da lurrera, konortea galduta. Besteak, izututa, larrialdietarako telefonora hots egiten du, eta telefonoa hartzen duenari esaten dio: “Uste dut nire laguna hilda dagoela. Zer egin behar dut?”. Telefonoz bestaldekoak honela erantzuten dio: “Aurrena, ziurtatu behar duzu zure laguna hilda dagoela”. Orduan, tiro bat entzuten da, eta segidan ehiztariaren galdera: “Bale, eta orain zer egingo dut?”.

Honaino, txiste zahar eta ezaguna. Txarra ez, baina ezta nire kuttunenetakoa ere. Hortik nire harridura, prentsatik jakin nuenean zer eta munduko txisterik onena omen dela.

“Omen” esan dut, baina omena kendu beharko nioke (zalantza, alegia, ez izen ona), ikerketa zientifiko bezain serio, serio bezain luze eta luze bezain garesti baten emaitza baita ebazpen hori. Ez da, beraz, zu eta ni bezalako to eta no txotxolo ezjakinen lagunarteko usteketa ustela, zientziaren azken epai erabatekoa baizik. Munduan ahoz aho, paperik paper eta pantailaz pantaila dabil-tzan txiste guztien artean parerik ez duen txiste paregabea da gure ehiztari parearena. Amen.

Aurreko paragrafoak garbi asko erakusten duenez, oso tarte txikia dago omenetik amenara, oso tarte txikia dagoenez. Bidea are laburragoa da, noski, kutsu akademikoa duten zertzelada batzuk ematen badira. Adibidez, psikologo bat dela ikerketaren zuzendaria (izena da gutxienekoa, alboan “katedradun” eta “university” bat aipatuz gero).

Onenaren (txiste, kirolari, herrialde edo beste zernahitan onena denaren) pes-

kizan, hala jarri nahi gaituztela, horra nire susmo beltza. Eta onena ez denean, beste superlatiboren bat aukeratu, eta hor hasiko zaizkigu hitzik edo kanturik edo hiririk politena izendatzeko lehian.

Eta kontuz, alferrik baita inposatu nahi diguten hori ukatzen hastea. Alferrik dela, alegia, txiste hobetik badela esatea, edo euskarazko kanturik onena ez dela Xabier Letek Xalbadorri eskaini ziona, edo gaztelaniazko hitzik politena ez dela “paz” (horraino iritsi zaizkigu eta).

Ez, botereak hitzez hitz diotenari kontra egitea ez da estrategia egokia, boterea gizendu baizik ez baitu egiten. Botereari kontra egiten diogulakoan, hark ezarri nahi dizkigun eskema eta parametroak onartzea da hori. Irakurri horretaz, mesedez, George Lakoff-en

Don't think of an elephant liburua, sarean eskura daitekeena (ingelesez eta gaztelaniaz dohainik, euskaraz ordaintuta ere ez noski, tamalez).

Hemen axola duena ez da txisterik (edo dena delakorik) onena zein den.


Hemen kontua da “onena” kontzeptua irentsarazi nahi digutela, aurretik ezin bada atzetik sartuta.

Kasu bakoitzean onena zein den eztabaidarekin entretentuta gauzkate, onenaren kontzeptua irrigarria ez ezik gaizto eta arriskutsua dela ohartu eta aldarrikatzen hasiko garen beldur.

Ilargia seinalatzen dion atzamarra ikustean ilargiari gabe atzamarrari begiratzen diona ergel tenteltzat hartu ohi da, baina hori da modu bakarra konturatzeko atzamar hori esku baten atal dela, eta eskua beso batena, eta besoa gorputz batena, eta gorputza pertsona batena, eta pertsona nola edo

halako botereren batena, eta dena delako botere horrek gure nagusi izaten jarraitu nahi duela, morroi eta mirabe behar gaituela, zoriontsu plantako inozo.

Gehiago behar genituzke horrelako ergel tentelak, hartara munduak agian utziko lioke, halako batean, txiste txar bat izateari. ■



Antton Olariaga

MARTXOAK

28

12:00

Konstituzio plaza

Bete dezagun Donostia euskaraz

musika · globo jolasak · magia · aire instalazioak

donostian ere
euskaraz

donostian ere
euskaraz



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



www.donostiaeuskaraz.eus

«Fikzio kontrolatzailea ez zait interesatzen»

Behinola, Etxalarren fortunatu da Antonio Zavala, Bidasoaldeko bertsolari eta bertso galduen arrastoan. Hantxe, Xamuio bertsolariarekin gertatu da, eta hark, Txirrita eta Axuraren bertsoak, gogoan harturik dauzkanak kantatu dizkio Zavalari. Bertso batean, ahantzia du lehen oina. *Beltzuria* liburuaren azalean ageri diren puntu ilara biak ditugu lehen oin hura, Xamuioren biloba Ixiar Rozasek hainbat gogoeta eginez berreraiki eta baliatu dituenak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkia: Zaldi Ero

Beltzuria. Liburua da, objektua da, baina ezohikoa azal eta barru. Hautu estetiko bat.

Denbora luzean buruan, eta gorputzean, izandako liburua izan da *Beltzuria*. Hitza emakume heldu baten ahotik lehenengoz entzun nuenetik jakin nuen zer bait idatziko nuela, hitz horixe abiapuntu hartuta. Haziz eta haziz joan da eta pazientziaz zaindu dut. Ez nuen liburua edozein momentutan idatzi nahi, kalitatezko denbora nahi nuen eta, bitartean, itxoiten egon naiz. Hasieran, oso elementu gutxi zituen istorioak. Pisu handiagoa zuen ez zegoenak, absentiak, zegoenak edo neukanak baino: argazkien falta, memoria falta...

“Ahotsa zen. Haren gorputza kantu egiten zuen ahots bilakatu zen. Haren identitatea egin zuen ahotsa kandela baten moduan itzali zen arte. Ahots bat baino ez zen”.

Hori da liburuaren beste haria, ahotsa. Urte hauetan zehar ahotsaren gaia ikertzen jardun dut; alderdi teorikoa aztertu dut, gehienbat, baina praktikoa ere landu dut. Azkenean bi ildoak solasean jarri ditut, elkar elikatu dute, eta aipatutako denbora hori izatea lortu nuen, idaztea erabaki nuen. Ordu arte, ohar batzuk baino ez nituen, zenbait hitz... gauza gutxi.

Ohar haiek liburu dira orain...

Idazketa prozesua bera ez da oso luzea izan, aurretik hartuak nituen erabakiengatik batez ere. Banekien zer ez nuen nahi, ez nekien zer nahi nuen, eta egin ahala jakin dut zer idatzi nahi nuen.

Kartak mahai gainean jarri dituzu, prozesua kontatu diguzu, biluztu ere egin zara hein batean.

Eta oso lasai egin dut. Jakina, zailtasun momentuak izan dira. Esate baterako, puntu batera heldu eta aspertzen hasi nintzen. Atal batean lortzen ari nintzen materialak ez ninduen asebetetzen. Baina uste dut sormen prozesuan asperdura hori zeharkatu beharrekoa dela. Gehiegi irauten badu, zer bait ez dago ondo. Idaztean tentsio puntu bat egoten da. Momentu horri tinko eustea inportantea da, egiten ari zaren horretan sinestea...

“Ez nuen liburua edozein modutan idatzi nahi, kalitatezko denbora nahi nuen eta, bitartean, itxoiten egon naiz”

Aitona zenuen Xamuio bertsolaria Etxalarren. Harekin izan zen Antonio Zavala *Bidasoaldeko bost bertsolari* liburuan, eta Xamuiok kantatu zion bertsoetarik batean lehen oina falta da.

Zuen aitonak ahantzia zuen. Gabezia horixe da zure liburuaren aitzakietarik bat. Sortzeari buruzko gogoeta da liburua? Ahotsari, eta haren materiari, buruzkoa? Xamuio bertsolaria berreskuratzeko saioa?

Beltzuriak horiek denak biltzen ditu: biltzen du ozen esandako hitz bat, biltzen du bailara batean erabiltzen zuten hitza, biltzen du meteorologia irudi bat, biltzen du haserrearen hitza... Horrexegatik aukeratu dut hitza, *beltzuri*, kontzeptu horrek aukera asko eman dizkidalako. Faltatzekotan, ahotsaren elementua falta zitzaidan, baina *ahotsa* hitza ozen esan eta ahoratzeko unea, liburuari hasiera ematen dion irudian aurkeztzen dut. Liburuaren protagonista ahotsa da, besterik gabe.



Negutegia nobelaz geroztik libururik argitaratu gabe zegoen Rozas. "Ikusgarriak izan ez diren hainbat kontutan ibili naiz, 'euskal sistema literarioaren' barruan sartu ez direnak: pieza eszenikoak, dramaturgia lanak...".

Ez zenuen, besterik gabe, istorio kontatzen jardun nahi.

Ez, besterik behar nuen. Besteak beste, garai berean ahotsaren inguruko ikerketa egin dudalako. Errealitateak bestelako konplexutasunak ditu. Ahotsaren eta lengoaiaren inguruko gogoeta ere izan behar zuen. *Beltzuria* idazten hasi aurretik hartutako erabakia zen hori. Oso garrantzitsua zen bidean aurkitzen eta lantzen joan naizen istorio, pasarte, informazio, hitz, ahots eta gogoetak orainetik begiratzea. Joan-etorrian ibili naiz, liburuan sartu eta irten, baina liburura itzuliz beti, testua-arentzako garrantzizkoa zena sartuz, eta bestea aparte utziz. Edizio eta muntaia lan handia dago. Material guztien arteko dramaturgian pentsatuz egin dut lan hori.

Bistan da *Beltzuria* ez dela aurretik idatzia zenituen gisako narrazio liburua.

Ez da, baina azkeneko narrazio liburua idatzi baino lehen hasi zen prozesu hau. 2003an

Gan bakar bat antzerki-lana idatzi nuen, elebitan —gero Hiru argitaletxean argitaratu zen—. Eta eszenaratzeak berak gogoeta egitera behartu ninduen: nola eraman hitza espaziora? Prozesu horretan hasi nintzen ahotsa eta performatibitatearen inguruan pentsatzen. Eta *Negutegian* ere bai; alegia, zenbait elementu ez hain narratibo, oraingo lanean berreskuratu ditudanak. Beraz, hamar urte iraun du. Eta, bitartean, ikusgarriak izan ez diren hainbat kontutan ibili naiz, "euskal sistema literarioaren" barruan sartu ez direnak: pieza eszenikoak, dramaturgia lanak, dokumentalak, saiakera laburrak, artikulua, doktore tesia...

Denak erlazionatuta daude, niretzat ez dago jauzirik batetik bestera, *continuum* bat dira.

Literatur sisteman ikusgarriagoa da, askozaz, ohiko formatuko liburua, lan eszeniko edo dokumental bat baino...

Bai, baina nork bere hautuak egiten ditu. Materialak idatzi, elkartu, oratu eta eskaini

**"Ahotsa da besterekin
harremanetan jartzen gaituena,
eta ez hitza.
Hitzak esanahia dauka,
baina ahotsa harago doa"**

egin ditut, eta gero irakurlearen lana da hor oratuta dagoen hori interpretatzea. Irakurleak sortzen ditu esanahiak, ez nik; gehiago baitira esanahiaren interpretazioa eskatzen duten testuak, bestelakoak baino, eta nahita egin dut. Lanaren etika moduko bat da. Idazteko modu asko daude, eta norberak erabakitzen du non egon, baina, niri, orain, fikzio kontrolatzailea eta esanahiak guztiz murtxikatuak eta errealtatea bera gainditzen ez duten konplexutasunik gabeko testuak ez zaizkit interesatzen irakurle naizen aldetik. Beraz, sortzaile bezala ere ez.

Ahotsaren inguruan duzu doktore tesia egina. Ikerketan barna egina duzun gogoetaren fruitu ere bada *Beltzuria*, ala?

Fokua ahotsen jartzean konturatzen gara ahotsa ez dela unibertsa, ahotsa norbanakoarena dela, bakar egiten gaituena eta, aldi berean, ahotsa erlazionale dela, ahotsa dela besterekin harremanetan jartzen gaituena, eta ez hitza. Hitzak esanahia dauka, baina ahotsa harago doa, hotsa da, ez da esanahia bakarrik. Honek guztiak bat egiten du teoria feministarekin, esan gabe doa. Liburu feminista da *Beltzuria*.

Horretan, *beltzuri* hitza definituz ekiten diozu liburuari, eta hiru definizio eman eta gero, honela dio laugarrenak: “Generoaren inguruan testu honetara ñabardurak ekartzen dituen hitza”, eta adibideak ematen dizkiguzu.

Interpretazio maila asko ditu liburu honek. Irakurle batzuek maila narratiboa lehenetsiko dute, beste batzuek esku-oharrak deituko, besteek bukaerakoa, freskoagoa, zuzenagoa delako... Ozen irakurtzeko testuak ere badira bukaerakoak. Hala ere, nire ustez, idazle batek esaten duena, idazten duenaren atzetik ohi doa. Askotan, *Beltzurian* idatzita-

“Interpretazio maila asko ditu liburu honek. Irakurle batzuek maila narratiboa lehenetsiko dute, besteek bukaerakoa, freskoagoa delako”

koak irakurritz erantzun beharko nituzke zure galderak. Horixe da tentazioa. Baina elkarrizketa ariketa ere egin behar da, ezta?

Horretan ari gara, bai. Deigarri da, zinez, liburuaren diseinua...

Testua hainbeste landu eta gero, ezinezkoa zitzaidan liburuaren itxura, diseinua, ez lantzea. Banituen abiapuntu batzuk, baina hori elikatu egin dute Bigarako Jon Ander Garcia eta Itziar Aranburuk. Oso ondo ulertu dugu elkar. Antonio Zavalak puntuen bitartez nabarmendu zuen memoriaren hutsunea aintzakotzat hartu zuten azala egiteko. Eta, gainera, lehen ilarako puntu etenak eta bigarrenekoak elkartu egin dira uneraren batean. Non? Hori irakurleak erabakiko du.

Nora zaramatza *Beltzuriaren* bideak? Alegia, zein kutsu harlezake zure hurrengo sormen-lanak?

Gaztelaniaz argitaratuko du datorren urtean Madrilgo argitaletxe batek. Ez dut oraingoan neuk itzuliko, baina itzulzaile izango denarekin harreman estua dudanez, prozesuan egongo naiz. Bitartean, oraintxe, saiakera labur bat amaitu berri dut, *Pulsión textual* (*Testu bulkada*), Quim Pujolek eta biok editatuko dugun afektuen inguruko liburu batean argitaratuko dena. Bartzelonako Mercat de las Flors-eko laugarren liburua izango da, dantza eta pentsamendua bildumaren barruan. Egia esateko, batera landu ditut artikulua hori eta *Beltzuria*. Artikuluan idazlearen ahotsa dut aztergai, baina ez “idazlearen ahotsa” aztertzeke asmotan, estiloa, ez. Hitzak, materia sonoro den aldetik, testu batean erabiltzen denean gertatzen dena aztertzen dut, hau da, nola eragiten edo afektatzen gaituen testu horrek, afektatzen bagaitu. ■



ATE IREKIEN ASTEA
Martxoaren 23tik 27ra

23 eta 24
Oinarriko ikasketen buruzko hitzaldia
19:00

25
Ikasketa Profesionalen buruzko hitzaldia
18:00



27
17:00 etatik aurrera

ENTZUNALDIAK
Kontserbatorio Inko
ikasle eta taldeen
DSS 2016 gunean



Musika Kontserbatorio Profesionala
FRANCISCO ESCUDERO
www.conservatorioescudero.org



*Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago*

***Gure independentzia harpidedunak zareten
pertsona eta talde askoren sarean oinarritzen da***

Eskerrik asko ARGIAzale! Zure ekarpenari esker hau guztia egin dugu:

Argia Eguna Usurbilen: Gure balioak elkarrekin praktikan bizitzeko eguna

Durangoko Azokaren harira, #darpidegu harpidetza kanpaina arrakastatsua

Kike Amonarrizen "Azken Txorakikeriak" liburuaren argitalpena

"Gure esku dago": giza-katearen jarraipena egiteko medioen arteko elkarlanaren sustatzaile

ARGIA English kanala martxan, nazioartean Euskal Herriaren berri emateko

Prekarietatearen aurpegiak eta Auzolan esperientziak sailak argitaratu ditugu astekarian urte osoan zehar

Hainbat ekimenen zuzeneko jarraipena egin dugu: Ondarroako Topaketa Feministak, Herri Harresiak, Zestoako TS Fundicionesen langileek egindako itxialdia eta Iruñeako abortu eskubidearen aldeko manifestazioa

Bidea urratu duten bertsoak liburuxka plazaratu genuen

2014ko urtarrileko Presoen Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioaren posterra

Euskarazko kalitatezko kazetaritza seinalatzen duten ARGIA Sarien 25. Edizioa

***Egizu. Egiozu.
Jarri ekonomikoki zure tanta
etorkizuna margotzen jarrai dezagun***

ARGIA astero 12 euro baino ez*

ARGIA hilean behin 4 euro baino gutxiago**

Eskaerak: ☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Argizaiolak izekirik dirau, haize kontra bada ere

Bittor Kapanagak (Otxandio 1925-2011) hizkuntza eta munduari buruz zituen ikuskerak jaso dira *Euskera erro eta gara* liburuan. Idazle euskaltzalearen lan guztien lehen bilduma da, Gerediaga Elkartearen eskutik argitaratua. Edizio lanen arduradun Juan Martin Elexpuruk lagundu digu aztiaren ospea irabazi zuen otxandiarra apur bat gehiago ezagutzen.

| MIKEL ASURMENDI |

DANI BLANCO



ARGIZAIOLAK ilustratzen du *Euskera erro eta gara* liburuaren azala: “Badu zerbait magikoa argizaiolak. Forma misteriotso hori, barnean zerbait astintzen diguna. Gainera, ilunpea argitzen du, Bittorrek askotan egin ohi zuen bezala”, diosku Elexpuruk. Kontrazalean iragana eta modernitatea irudikatuta daude: “Ez zuen atzera begiratzen bakarrik. Kapanagak iragana arakatzeaz gain, orainari eta geroari buruzko proposamenak egiten jardun zuen politikan, kooperatibagintzan, euskara batua-
ren gorabeheretan... Pentsalaria, filosofoa

**“Batua-
ren alde
zegoen, baina astiro
egin behar zela,
euskalki bakoitzetik
onena hartuta.
Amorruz bizi zuen
bizkaieraren
bazterketa batua
eraikitzeke orduan”,
esan digu *Euskera
erro eta gararen
editoreak.***

zen beste ezer baino gehiago. Aztia, txamana edo orakulua zela ere badiote bere lagunak”.

Haren lanaz, berriz, horrela mintzo da editorea: “Lehenengo nabarmenduko nuke bere prosa, oso dotorea. Idazle ezagun batek esaten zidan Mitxelaren edo Atxagaren inbidiarik ez duela estilo aldetik. Edizio lanari dagokionez, nahiko ohitua nago inoren liburuak editatzen, baina hau ezberdina izan da. Hasteko, aukeratu egin behar izan dut: gaurko euskara batura ekarri, dagoenetan utzi edo erdibideko zerbait egin. Azkenean, zegoenetan uztea erabaki genuen, eta erratak zuzentzera mugatu naiz ia bakarrik. Bittorrek ondo pentsatuta idazten zuen hitz bakoitza, eta haren espirituari iruzur egitea izango zen bere lanak gaurko batura ekartzea. Batu zalea zen arren, tximistaren bat jaurtiko zigun *euskara* edo *gabe* jarri izan bagenitu jatorrizko *euskera* eta *bageren* ordez”.

Euskera erro eta gara da, eta ez *Euskera erro eta gara*, alegia. “Bertsolarien adieran, bigarrenaren errima goxoago izan arren...”. Irriz hartu du burutapen hori: “Errima hobea du, noski. Baina berak zerbait bazeukan garbi horixe zen, *euskera* zela gure hizkuntza eta ez euskara; —era dela bigarren osagaia: *bizkera*, *gipuzkera*, *bizkaiera*, *italiera*, *japoniera*... Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria, euskaldunen %70k *euskera*, erdal hizkuntzetan ari garenean *euskera* eta batuan *euskara*? Uste dut ez zitzaiola arrazoirik falta”.

Refranes y Sentencias liburuaren dela eta, Mitxelarenekin sestran jardun zuen: “Bittor heterodoxoa zen, espiritu kritikoa zuen. Autoritatearen argudioek ez zuten harekin balio. Euskaltzaindiarekin harreman handia izan zuen, bazituen lagunak eta ez hain lagunak. Titulu gabea zenez, eta apala gainera, zenbait ez zion begirune handirik. *Refranes y Sentencias*eko esakia batzuen interpretazioarekin ez zetorren bat. Artikulu bat argitaratu zuen *Euskeran*. Eztabaidatuen: ‘Erioak Erezan, Butro-

eko alabea Plentzian'. Kapanagak *Manantiales en Ereza, la hija de Butrón en Plencia* itzuli zuen. Zentzugabetzat zeukan originalak zekarrena, Mitxelenak ontzat eman zuena: *El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia*. Diotenez, errenteriarra asko haserretu zen Kapanagaren lana akademiaren aldizkarian argitaratu zelako. Nolanahi ere, gaur egun gehienek diote betebetan asmatu zuela Bittorrek".

Euskara batua hizpidean, batuari eta euskalkiari buruzko gorabeherak izan dira betiere. Bizkaieraren bilakaera minez bizi zuen Kapanagak. "Euskara batuaren prozesua hasieratik bukaeraraino bizi izan zuen. Baionan zen 1964an, Txillardegik antolatutako bilkura erabakigarrian, baita Arantzazun ere 1968an, Euskaltzaindiaren batzarrean. Batuaren alde zegoen, baina astiro egin behar zela zioen, euskalki bakoitzetik onena hartuta. Bizkaiera euskalki arkaikoena da, forma zaharrei ondoen eutsi diena bere iritziz, eta amorruz bizi zuen euskalki horren bazterketa batua eraikitzeke orduan. 'Euskera' eta 'bage' aipatu ditugu, eta aditzean, esaterako, 'zuek zare' proposatzen zuen. 'Zarete' aberrazioa iruditzen zitzaion. 'Orduan, zergatik ez 'garete?', esaten zuen".

Kritikoa zen "eruditoekin". Sarri botatzen zizkien eztenkadatxoak. *Euskera erro eta gara lekuko*: "Gure 'erdipurdiko aro' honetako euskalariak zertan ari zaizkigu? Urre mea baten gain eseririk, ea lur gorritzka horrek liliak landatzeko balio ote duen analizatzen". Alabaina, Kapanaga oso optimista zen, "Hizkuntzak, itsasoak bezela, beti joko du bere eremuak berreskuratzen", esaldian ageri denez: "Jakitun zen hizkuntza asko galdu dela historian, baina itxaropena zuen euskarak bere eremuak berreskuratuko dituela, urak bezala. Ni ez naiz hain optimista, baina irakurri berri dut Zalduondon %18 zirela euskaldun 1981ean, eta orain %37 direla. Badator ura gora".

"Bittor heterodoxoa zen, espiritu kritikoa zuen. Autoritatearen argudioek ez zuten harekin balio"

Juan Martin Elexpuru

Ura, sua, haizea, lurra, zuhaitza elementuek garrantzi handia dute Kapanagaren azterketa linguistikoa zein antropologikoa. Oso ondo ezagutzen zituen natura eta hari lotutako hizkuntza. *Euskeran* aurkitzen zuen gure ingurua eta iragana interpretatzeko hainbat giltza. *Euskaldunon ikuskera* da, agian, bere pentsamendua ezagutzeko obrarik egokiena. Hamaika gai jorratzen ditu, batzuetan gehiegi sakondu barik. "Sua ote zen Bittor Kapanaga?", itaundu dugu Elexpuru: "Zer esan? Ura bazen eta sua ere bai, baina motela, txingar handikoa baina garra apalekoa, harrokeria gutxikoa. Gontzal Mendibili esan ohi zion, 'Arestiren *Aitarren etxea defendituko dut* ondo egon da sasoi baterako, baina *Amaren sua berpiztuko dut* hartu behar genuke garai berrietarako".

Lotsatia zen, baina bere egia edozeinen aurrean agertzeko lotsarik ez zuen. Jakin-min eta sen handikoa. Goxoa eta malgua, beretzat inportanteak ziren gauzetan amore ematen ez zuena. Austeroa. Bakarrik bizi zena; ezkongabea nahita, libertatea galtzeko beldur. Psikologo ona.

Berriketa-lagun paregabea. Gauzei ezusteko ikuspegietatik begiratzen zekiena. Joan badoan iragan garaiko seme: "Hamaika urte zituela bere begiekin ikusi zuen gerrateko lehen bonbardaketa. Gerra oste iluna; nerabezaroa behiak zaintzen eta irakurtzen. Hogei urterekin Eibarrera. Hura izan zen bere unibertsitatea. San Martin, Laspiur, Basauri... Han jantzi zen. Hogeita hamahirurekin Otxandiora itzuli eta herrigintzan murgildu zen, kooperatibak sortu zituen, baserria alokatu eta behiak ipini. Baina bere bihotzeko kuttuna *euskera* zen. Hura azterten eta hauspotzen eman zuen bizitza erdia". Hil ostean, adiskide izandako hogeita sei lagun elkarrizketatu zituzten bideoz. Interneten dago guztia. "Otxandioko aztia" idatzita bila daiteke: "Miresmena da denen jarduna laburtzen duen hitza. Tematia, burugogorra zela ere esan zuen batek baino gehiagok. Gauza bat garbi bazuen ez zuen erraz atzera egingo".

Azken belaunaldikoekin oso ondo moldatu zen halere. Igor Elortza eta Unai Iturriaga, esaterako, oso lagunak zituen. Herriko Tabernan orduak pasatzen zituen egunkariak irakurtzen, eta gazteak sarri hurbiltzen zitzaizkion berriketan egitera. Gazteak pozik eta bera ere bai.

Editoreak liburua irakurtzera animatu nahi ditu euskaltzaleak, batez ere filologoak: "Joera dago 'ofiziokoen' artean Kapanagaren ideiak mespretxatzeko, ezagutu gabe sarri. Ehunka etimologia proposatzen du eta euskararen iraganaz hipotesi interesgarriak plazaratzen ditu. Beti ez du asmatuko, baina beste batzuek ere ez. Ilunpean ibiltzen gara horrelako gaietan, baina ilunpe horretarako ez da argizaiola txarra Kapanagaren obra". ■

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza


25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

Literatura

Herriko bozak
Piarres Larzabal

Auspoa
1962



Hau deitzen da POLITIKA

TEATROA, daukagu erabat ahaztua. Nahiago nuke bakarrik hemen; aldiz ea nor doan gaur antzokira, are ea nork ateratzen duen testua irakurtzeko kuraia. Eta aitzitik ditugu teatro idazle azkarrak, Piarres Larzabal, aurtan jaio zela mendea. Ibon Sarasolak: “Apaiz. Epe honetako autorerik hobere-na. Ehunen bat obraren egile”. Larzabalek konfirmazioa: “Uste dut ehun ta hogeit bat obra, handi eta tiki, luze eta labur idatzi izan ditudala”. Lehen ikusgarria, *Irri eta Negar*, gizon mozko baten merkatutik etxera sartzea, *Gure Herria* aldizkarian argitaratzen zuena. 1934. Beste Piarres batek, Xarriton: “Irri eginarazteko xedea besterik ez dute hastapenean. Las-ter, irri eta negarren artetik, entzun-ikusleari zenbait gogoeta eginarazi nahi dizkio. Gizarte arazoak harrotzen dituzten komediak dira”. Xarritonen ustez Larzabalen larrienak: *Orreaga*, *Paper mende*, *Sarako lorea*, *Urriki latza* 1964an, gero *Lana eri*, *Sue-dako neskatxa* 1965ean, *Ibañeta* eta menturaz hobere-na, *Matalas* 1968an –Sarasolak berresten du azkena: “haren obrarik interesgarriena”–. Labur, Larzabalek berak idazlan osoen 6. liburukian dioena: “Otoi euskalduneri erakuts diezaiegun nolakoak diren eta direnarekin zer egin dezaketen. Bizia lagun dezala teatroak, biziarekin kurrituz. Ikusliarrak bete ditza-gun ez bakarrik iragan ederraren penex, baina egite-ko denarentzat xede suharrez”.

Eta badakit lehenik departamendukoak direla, baina zer nahi duzue esatea: Matalasen bizitza eta mirariak baino, Ibañetako patriotismoaz bestera, puskaz gehiago gozatu dut udal hauteskunde-entzulan ari den *Herriko bozak* honekin. Pertsonaiak, bozetako egunetan ardo gorritik edaten duten gorriak batetik, zuritik edaten duten zuriak beste-tik. Bakoitza bere aldeko bozen bila. Gehi Pako mozkorra, noski: “Heldu da bozkatzeko tenorea, ez da orduan erregerik ni baino ohoratuagorik”; “Ha zein goxo den hola jaun handi batzuen, zure eskale bilakatuta, ikustea!”. Eta Kattalin, ostalertsu, auskalo nagusia, baina a ze jefa: “Politika egin behar dela nahi dut, bainan politika saltsa... Hani-tzentzat saltsan artzea da politika egitea”. Pakok, gorriak eta zuriak edan ondotik, sententzia: “Ber-din denek leher egiten ahal dute enegatik”. Baina-ren bat jartzearen, zalantza izan dut pertsonaia batekin, burxoroa baita. Gertaldi oso bat ematen dute haren kontura iseka: “Zakurrak saingaz eta haurrak harrika lotu zaizko”. Halere, azken gertal-diak ahantzazten dizkizu oro makurrak. Pakoren bozarekin, bozen kondaketarekin, bikaina. Ezen ondo baitio Kattalinek: “Ez izan beldur... Hau dei-tzen da POLITIKA”. ■

Aritz Galarraga



Liburu azoka

Laudion, martxoaren 20tik 29ra Lamuza plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Eskola errusiar onena



Kontzertu Handien Zikloa, Berlingo Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria: Dimitri Kitajenko. **Bakarlaria:** Elisabeth Leonskaja (pianoa). **Egitaraua:** Prokofiev eta Rakhmaninov-en lanak. **Lekua:** Gasteizko Principal Antzokia. **Data:** martxoaren 4a.

BENETAN MIRETSI EGITEN DUT musika eskola errusiar klasikoa. Talentu apartak oparitu dizkigute etengabe, bai interpretazioan, bai konposaketan, bai zuzendaritzan. Eta guzti horren “mix” bat disfrutatu dugu Gasteizko Kontzertu Handien Zikloaren hirugarren emanaldian. Ziklo honetako lehenengo saioan Daniil Trifonov pianista gaztea izan genuen, azkenetako izar errusiarren ordezkari, eta aldi honetan Errusiako piano eskolako dama handi bat, Elisabeth Leonskaja, benetako maisua. Hirurogeita bederatzi urterekin lezio ikaragarria eman zuen taula gainean: musikaltasuna, dotorezia eta indarra, topean.

Ez zuen Leonskajak aukeratu obra erraz bat. Prokofiev-en 2. Piano eta Orkestrarako Kontzertua lan exijentea da, oso, ez du atsedetik hasieratik bukaeraraino bakarlarientzat. Eta piano joleak mai-sutasunez gainditu zituen zailtasun guztiak, frogatuz teknika soberan duela aietasunez jotzeko, baita musikaltasuna ere guztiaren gainetik azpimarratzeko; nahiz eta arazo larriak izan eserlekuarekin —lehe-


nengo mugimendua amaitu arte hala edo nola mol-datu zen eta ez zitzaion ezer nabaritu bere jokoan, hori da profesionaltasuna!—. Dimitri Kitajenko zuzendariak, bere aldetik, jakin zuen lan berezi honi irakurketa erromantikoa ematen, Prokofiev-en alde zorrotzak leunduz eta pasarte ameslariak nabarmenduz. Leonskajak, txalo zaparradak bultzatuta, Rakhmaninov-en Preludio delikatu bat eskaini zuen bis gisa, aurrekoa bezala ederra.

Saioaren bigarren zatian, lan potolo bat entzun genuen, Rakhmaninov-en 2. Sinfonia hain zuzen ere. San Petersburgon 1908an estreinatutako sinfonia luze hau errusiar tradizio sinfonikoaren adibide garbia da, zeinean imajinazio melodikoa garrantzitsua baiten eta obraren garapena hotsandikoa eta berebizikoa. Kitajenkok oso bertsio erromantiko eta zentzu onean tradizionala eman zuen, Mariinsky antzokian egongo bagina bezala. Ederra. ■

**Montserrat
Auzmendi**

Gurutzegrama tematikoa

Gaia: Bidasoa ibaia



Ezker-eskuin:


1. Bidasoa itsasoratzen den badia. Aupa, iepa! Nafarroako herri honetan Ezkurra ibaiaren urak hartzen ditu.
2. Mezaren erdiko zati, sagara. Ontzi-mota, suil. 3. Adierazi. Argonaren sinboloa. Dirua erabili, eta bereziki xahutu.
4. Zezenari paseak egin. Kausaz. 5. Desagertutako ugaztun. Euskalategi sarea. 6. Hormako irekigune. Ahalik eta.
7. **Baztango herri honetan sortzen da, Baztan izenarekin; Mugairira iristean Bidasoa izena hartzen du.** Aezkoakoa. 8. Zurrutada. Hurbilen. 9. Jarraigo, ahuku. Urrin. Putz, sabel-haize. 10. Doministiku. Arreta, ardura. Lantokia.

Goitik behera:

1. Pausaldi. Ile asko duena. 2. Salerosketa bat egitean ematen den diru kopuru. 3. Nafarroako herria. 4. Letaginen atzean dauden hortzetako bakoitza. 5. ... otoan, ezustean. 6. Umedun gertatu. Da, haiei. 7. Ezordu. Zakur. 8. Bizkaiko uhartea. 9. Arraioa! 10. Erbioaren sinboloa. Bokak errepikatua. 11. Udak irauten duen denboraldi. 12. Piruak eginez. Hurbil. 13. Geun, gandu. 14. **Nafarroako herri honetatik pasa ondoren Gipuzkoan sartzen da.** 15. Liburu euskarri. 16. Gauza bat aipatzen duen edozein hitz. 17. Hizketan. 18. Egurra. Utikan! 19. Errusiako enperadore. Herri hizkeran, zer. 20. Intsektu mota. Kilogramo. 21. Txekor emea. Omen. 22. Elizkoia.


Betegrama

Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.





5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1. Akatsik gabe. 2. Udaldi.
3. Berria ez dena. 4. Fasea.
5. Neu, nihaur.

Soluzioak





Diseinua, moda guztien gainera

Timeless, Massimo Vignelli

Non: Okendo Kultur Etxea, Donostia.

Noiz arte: apirilak 18. **Sarrera:** doan.

NOLA DIOZU DUELA IZENA TIPOAK? “Vignelli”, erantzun du diseinu mundua pasioz bizi duen etxeko informazio iturriak. “Massimo Vignelli”, bi *eseak* eta bi *eleak* ondo ahoskatuta. Izen handia baita, baina, zer den gaiaz deus ez jakitea, ez nuen ezagutzen. Iaz falta-tu zen mundutik Italian jaio –Eibarren Errepublikak aldarrikatu zen urte berean– eta handik urte batzuetara New Yorkeko ofizioaren gailurreraino eraman zuen diseinatzailea. Donostia Kulturak eta Husmee estudioak omendu dute Groseko Okendo Kultur Etxean, diziplinaren ezagutza handirik izan gabe ere gozatze-ko eta pentsatzeko ematen duen erakusketarekin.

Haria Vignelliren jarraitzaileen lanek jartzen dute, mota guztietakoak, trebatzen ari direnen emaitzetatik –tartean Irungo Kunsthal diseinu eskolako ikasle baten afixa; erakusketan ez da egilearen izen-abizenik ageri, barka–, izen handiko diseinatzaileetarako –Javier Mariscal, 1992ko Joko Olinpikoetako Cobi maskotaren autore intelektuala–. Haiek eramango zaituzte aretoan barrena, han eta hemen kokatutako zenbait material eta lekua bitan banatzen duen panel

nagusiko aipuz lagundurik; gehiegikeriarik gabe, modu eraginkorrean prestatuta.

“Bere filosofia hori zen”, jarraitzen du informatzen familiak, “edozer egiten duzula ere, ulergarria izan dadila”. Eta iraunkorra. Ondo eraikitakoa. Semantika, sintaktika eta pragmatika. Asko ari gara ikasten kolpean, segi, segi: esplikatzen digu asko teorizatu zuela diseinuaren zereginaz; eta, inportanteagoa, ondo teorizatu zuela. *The Vignelli Canon* liburuxkan bilduta daude buru-ariketa horien emaitzetako batzuk –ingelesez dakitenentzat irakurgai www.vignelli.com/canon.pdf helbidean–.

Aurreiritzi batzuk gainetik kentzeko behintzat balio du hurbiltzeak. Sorkuntzaren esparru honek modarekin eta merkatuaren aldian aldiko kapritxoekin zerikusia duela uste baduzu, adi Vignelliren esaldi honi: “Baztertu egiten dugu zaharkitzapenaren kultura, hondakinen kultura, iraupen gutxi duena gurtzea. Higuintzen dugu aldi baterako irtenbideen eskaria, energia eta kapitala alferrik gastatzea berritasunaren mesedetan”. Iraun dezake diseinuak betirako? Erakusketari hilabete geratzen zaio. Ateak itxi baino egun bat lehenago, apirilaren 17an, Beatriz Cifuentes eta Yoshiki Waterhousen hitzaldi batek aseko du diseinuaren *massimoaz* jakin-mina dutenen gosea. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

Digestio txarrak buruhaustea direnean

ADITUEK DIOTENEZ, hamar emakumetik zazpi molestiak dituzte digestioa egitean. Gizonezkoengan proportzioa txikiagoa bada ere, asko kexatzen dira digestio astunez: puzte-sentsazioa, gasak eta sabeleko mina ohiko sintomak dira.

Digestioa prozesu konplexua da. Jan ondoren, urdailean hainbat azido eta urin konbinatzen dira, janaria xehatu, hartatik mantengaiak atera eta gorputzak behar duen energia eskuratzeko. Sarritan, azido horien arteko oreka hautsi egiten da; horrek bihotzerrea edo indigestioa eragiten du. Arrazoi bereziez gain —behazuneko edo pankreako gaitzak baztertzea komeni da, hala nola urdaileko nahiz duodenoko ulzerak, diabetesa etab.— arazok hainbat jatorri izan ditzake:

- **Jatordu ugariak, pisuak eta koipe askokoak.** Gehiegikeriak noizean behin baino ez badira egiten, urdaileko molestiek ez dute ordu batzuk baino gehiago iraungo, normalean. Baina tripa-kadak sarri errepikatzen badira, sintomak luze iraungo dute.

- **Alkohol asko edatea.** Azukre gutxiko edariak —ginebra, esaterako— izan edo oso gozoak izan, alkohola beti da narritatzailea urdaileko mukosarako.

- **Elikagai jakin batekiko intolerantzia.** Esnearen laktosa izaten da, normalean. Gasak eta beherakoak agertzen dira kasu horretan.

- **Tratamendu luzeak egitea** antibiotiko, kortikoide edo anti-inflamatorioekin —baita azido azetilsalizilikoarekin ere—, baldin eta ez bada aldi berean urdail-babesle bat hartzen.

Alabaina, aholku simple batzuk jarraitzea nahikoa izango da hobekuntza nabarmena sumatzeko:

Zaindu elikadura

Lasai murtzikatu, bestela urdailak ahalegin handiagoa egin beharko du elikagaiak deskonposatzeko, urin gehiago jariatuko du eta horrek bihotzerrea areagotuko dizu. Jaten ari zaren bitartean saihestu itzazu giro zaratsutsuak —ez litzateke ideia txarra telebista itzaltzea—, baita urdaileko mukosa narrita dezaketen substantziak ere (pikanteak, alkohola...) eta jan ondoren infusio digestiboak hartu kafearen ordez.

Jatorduetan onena koipe egokiak

aukeratzea da, oliba olio adibidez, hestea lubrifikatu eta hustuketa errazten dutelako. Eta haragi gorriaren ordez digestio errazeko proteinak, arraina eta haragi zuria esaterako. Postrean papaia bezalako frutak, edo jogurt gaingabetu bat.

Hobe da egunean bost jatordu txiki egitea bi handi baino. Gorputzak errekuiperatzeko denbora eduki dezan, saihestu koipeak. Ohera joan baino pare bat ordu lehenago afaltzea komeni da. Oheratzear zaudela elikagai solido asko hartzen badituzu, urdailean hartzituko dira, eta molestiak azalduko dira.

Sintomak gogor samarrak direnean, esnea eta gazta astunak murriztea edo erabat kentzea komeni da. Esnea aringarri gerta daiteke hasiera batean, baina bi edo hiru ordura gasak eta bihotzerrea eragindo ditu.

Eta elikaduraz gain?

Estresa kontrolatzea komeni da. Urdaila eta hesteak inerbazio handiko organoak dira, eta asko sufritzen dute estresarekin.

Masajeak mesedegariak dira: egin itzazu errotazio-mugimendu suabeak eskuinetik ezkerreara hatzekin sabelaren gainean, eta hobera egingo duzu.

Mugi zaitez. Bazkalostean ordu erdiz ibiltita egunero-egunero, kaloriak erre, digestioa erraztu eta hesteetako mugimenduak aktibatuko dituzu.

Eta kontuz molestiak arintzeko botikekin, antiazidoek hipertentsioa eragin dezakete eta. Botikak hartu aurretik galdetu beti medikuari. ■



A voluptuary under the horrors of digestion, James Gillray karikaturagile ingelesaren marrazkia (1792).

Babeslea: iametza Interaktiboa



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Gosea

GOSEA KUDEATZEA izango da etorkizunean negozio emankorre-na. Automobilak eta segapotoak egiten dituen aberastuko da, baina Kristina gure izeba zaharra zenak esaten zuen bezala: “Txori guztiak mokodun”. Denok jan behar dugula, alegia.

Hemendik aurrera mundua hankapean izateko arma nagusia gosea izango da. Herri bat estutu nahi dugula? Gose pixka bat eragingo diogu. Herri bat eraitsi nahi dugula? Tori gose gaindosia.

Gaur egun dirua duenak eta etorkizun luzeko inbertsioa egin nahi duenak jakiei begiratzen die.

Landareak berenganatzen ari dira. Geuk eta geuk jango ditugun animaliek jan behar dituzten janariak patentatu egiten dira. Hau da, enpresa edo jende jakin batzuek beretzat hartzen dituzte bizidun batzuk. Gero horien aberastasun genetikoa berena dela diote, eta, antzeko bizidunengan gene horiek ere badaudenez, denborarekin dena berena izango da. Milaka urtetan hobetu eta hautatutako aldaerak (patata, babarruna, piperra...) esku pribatuetara igarotzeko bidea abiatua da. Imajina dezagun: Tolosako babarruna edo Errioxako *tempranillo* mahatsa edo txalaka sagarra edo... jabe batzuen esku.



TIAGO FIOREZE-CC BY SA

Afrika eta Hego Ameriketan lur sail ikaragarriak berenganatzen ari dira zenbait enpresa, munduko merkatuan sartu nahi dutena lantzeko, bertako kulturak gutxietsiz askotan. Argazkian, Brasilgo soja eremu bat.

Baliatu nahi duenak ordaindu egin behar. Eta, dirua izanagatik, ukatu ahaliko dute.

Lurrak berenganatzen ari dira. Afrika eta Hego Ameriketan lur sail ikaragarriak erosten ari dira. Lurraren jabegoak dakartzan bitsaren gaineko jarrerak ikusten ditugu, dagoeneko: bertan bizi diren kulturak gutxietsi, haiek lantzen dutena sarraskitu, munduko merkatuan sartu nahi dutena egiten jarri (gaur kafea, bihar soja,

etzi limoia...) eta esklabotza eredu berriak haztatu.

Lehengaiak berenganatzen ari dira. Adibidez, nekazaritzan behar izaten diren zenbait ongarriren guneak: Lurrean urri xamarak dira fosforoa eta magnesioa, eta horien harrobiak pribatizatzen ari dira.

Farmazia industria, kimika industria, bankaren industria... eta nekazaritza industrialak. Hortik dator gosearen demokrazia. Adi! ■



Urkamendia

PINUDIAN barrena bidea. Bidea ixtea komeni. Tarteka ireki egin behar. Gereta, ataka edo langa, zerbait jarri behar. Eta hari eusteko baldoa. Burdin hagarekin zuloa egiteko eta zur-mailuarekin jo eta sartzeko lanak hartu beharrean, errazena: aldameneko pinu tukurri lotu.

Ahaztu dira gero itxiturak eta geretak. Baita pinuaren lepoa itozten duen soka ere... Baso urrunetako kontua balitz, gaitz erdi. Kalekalean ere nonahi ikusten dira urkamendiak... ■

Rosetta Tharpe, rock and rollaren ama

COTTON PLANT (ARKANSAS, AEB), 1915EKO MARTXOAREN 20A. Rosetta Nubin jaio zen, gerora, lehen senarra-
ren abizena hartuta, Sister Rosetta Tharpe izenez ezaguna
egingo zena. Gurasoak kotoi biltzaileak zituen, eta
COGIC (Church of God in Christ) Mendekoste elizaren
jarraitzaile sutsuak. Amak elizan abestu eta mandolina
jotzen zuen igandetan, eta alabak amarekin bat egin zuen
lau urte besterik ez zituela. Handik bi urtera ama-alabak
AEB hegoaldeko elizetan emanaldi-itzulia eskaintzen hasi
ziren, gospelaren bidez ebanjelari lanak eginez. Rosetta
txikia haur miraria zen kantuan nahiz gitarra jotzen.

1920ko hamarkadan biak Chicagora joan ziren bizi-
tzera. 40. kaleko COGIC elizan gospel kontzertuak
eskaintzen jarraitu zuten, sermoien osagarri, eta tarteka
biran irteten ziren, elizaren biltzarretan parte hartzeko.
Hala, Rosetta eragin berriak xurgatzen hasi zen. Hego-
aldean emandako urteetan oinarritzko gospelari blues
kutsua eman zion, gitarra elektrifikatu berrian gero eta
nabarmenagoa izango zena. Chicagon, aldiz, jazzaren
eraginak haren ahotsa hartu zuen. Swingaren eta boogie
woogiearen erritmoak ere sartu zituen koktelontzian, eta
estilo berritzailea lortu zuen. Rock and roll kontzeptua
definitzeko zegoen oraindik, baina Rosetta Tharpek
konposatu, jo eta kantatzen zuenak rock and rollaren
antz handia zuen.

19 urte zituela ezkondu zen lehenengoz eta lau urte
geroago, 1938an, senarra Chicagon utzi eta, ama hartu-
ta, New Yorkera aldatu zen. Urte hartan sartu zen lehen
aldiz grabaketa estudio batean, eta emaitzak arrakasta
izan zuen publiko orokorrean, baina beltzengan nagusi-
ki, muturreko segregazioa indar betean baitzegoen
orduan. Elizaren jarraitzaileen artean, ordea, ez zuen
halako harrera onik izan, sortu eta interpretatzen zituen
abestiek, oraindik hitz espiritualak izan arren, doinu
sekularregiak zituztelako. Gainera, gospels elizatik atera
bai, baina ez zuen grabaketa estudioetara eramanez soilik.
New Yorken Carnegie Hall, Cotton Club eta halako
gaueko lokaletan hasi zen bere estilo berezian jotzen.



BLACK CULTURE CONNECTION

**Sister Rosetta Tharpe (1915-1973), XX. mendeko
musikan eragin gehienik izan duen artistetako bat.**

Kontserbadore eta puristenek ez zioten barkatu musika
sokratua bekatu-zulo haietara eraman izana. Ere mu-
batuan ere espiritualtasuna kontu mundutarragoekin
konbinatu zuen Rosetta Tharpek: fedeari tinko eutsi
zion bizi guztian, jainkoaren hitza zabaltzeari ez zion
sekula uko egin baina, hainbatetan ezkontzeaz gain,
maitale ugari izan zituen, emakume nahiz gizonezko.
Konbentzioak hausteko inolako arazorik ez zuen Thar-
pek. Gizarteak hori onartzea beste kontu bat zen.

Besteak beste, Chuck Berry, Little Richard, Johnny
Cash, Jerry Lee Lewis eta Elvis Presleyk berak aitortu
zuten Tharpek haien ibilbidean izandako funtsezko er-
agina. “Rock and rollaren amabitxia” esan izan diote,
baina “errege”, “aita”, “aitzindari” tituluak *jarraitzaileek*
lortu zituzten, haren biografo Gayle Wald-en hitzetan,
Sister Rosetta Tharpe rock and rollaren tronuan esertze-
ko “beltzegia eta emakumeegia zelako”. ■

Sister Rosetta Tharperen bideo bat ikus
dezakezu esteka honetan:
tiki.com/337711



Arrastoak

Super Glue gerran eta bakean

OMEGATRON-CC BY SA



1942AN HARRY COOVER kimikariak
Super Glue lekeda asmatu zuen nahi
gabe. II. Mundu Gerran Eastman-
Kodak enpresan lanean ari zen, fusilen
ikusgailuak egiteko materialen bila.
Metilo zianokrilatoarekin egin zuen
topo, baina berehala baztertu zuen,
substantzia madarikatu hura gauza
guztiei itsatsita geratzen baitzen.
Material berbera aurkitu zuen handik

bederatzi urtera eta, orduan bai, kola
gisa erabil zitekeela pentsatu zuen,
presiorik eta berotasunik ez baitzuen
behar kola egonkor hark. Kodakek
1958an merkaturatu zuen lehenengoz
Super Glue izenez, eta arrakasta bere-
halakoa izan zen. Handik urte batzue-
tara Super Glue gerran itzuli zen,
Vietnamen zauriak ixteko erabili bai-
tzuten, hariz josi orde. ■



Diputació de Lleida
Patronat de Turisme

Elurraren lurraldetik haratago...

TURISMO AKTIBOA

Baqueira Beret
Boi Taüll Resort
Port del Comte
Espot Esquí
Port Ainé
Tavascan
Tuixent-La Vansa
Virós-Vall Ferrera
Aransa
Lles de Cerdanya
Sant Joan de l'Erm

APP BERRIA
aralleida365
—
aralleida.com

Parte hartu lehiaketan
#nieve1415
aralleida.com/concursonieve



DONBASS

Inurriak bezala



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
|ANDONI LUBAKI|

GERRAN

Devaltsebon



Errauts usaina dago. Egur kearena ere bai.
Devaltsebora sartzea San Joan su baten ondoren
itzalitako errautsen gainean ibiltzea bezala da, baina festa girorik gabe.
Jende ilarak arropa, janaria eta edateko uraren eskean.

DONBASSEKO GOBERNUAK irekitako bulego baten aurrean Ekhaterrinak dena galdu duela esan dit. Bera ere jantzi eta ahora eramateko zer edo zeren bila dabil. Agintari militarrek lokatzetara itsatsi dituzten kanpin denda moduko batean bizi da bere 5 senideekin. “Senarra bonbardaketa batean hil zen eta orain alaba zaharrena eta bere familiarekin nago. Umeentzako arropa bila nabil, hoztu ez daitezen. Hotzak berriro itzuliko baitira” dio amandre zurbil honek. Su-etena sinatu ondoren errusiarzale eta Ukrainiako soldaduek borroka areagotu zuten Devaltsebon. Hiri estrategikoa baita bere lantegi eta tren geltoki handiarengatik. Eremua kontrolatzen duenak herri bat baino gehiago irabaziko duela bazekiten eta bi aldeek hiriko zenbait toki bonbardatu zituzten. Urteetan eraikitako etxeak deuseztatu ziren. “Ukrainarrak ez dabilta hemendik urruti, beraiek itzultzeko beldur gara. Jende askok ez du aurpegia erakutsi nahi itzulera horren beldurrez. Auskalo zer egingo luketen hori horrela gertatuko balitz” dio Tatianak. 33 urte ditu eta 2 seme-alaba dauzka. Senarra frontean omen du, “Kosakoekin ari da borrokan, baina bera ez da kosakoa. Devaltseboko gatazka hasi zenean kanpoan zegoen eta sartzerik ez zuen izan. Horregatik egon zen kosakoekin, gu berreskuratu nahi gintuen, bere familia” dio irribarrez.

Estatistika zehatzik ez dago. Agintariek ez dute biztanleen zenbatak ihes egin zuten jakiterik izan. Ez dakite zehatz zenbat hil diren, ezta zenbatak behar duten zer ere. “Hiria eskuratu berri dugu eta ukrainarrek mina asko jarri dituzte inguruan. Jende xumearen etxeetan gehienak. Bueltatzen direnak beldur dira. Atzo agure bat hil zen Devaltsebo inguruan dagoen herrixka batean. Komuna deitzen diogu herri horri, bertan produzitutako guztia era komunalean banatzen baitzen. Orain kosakoak daude bertan. Etxeak banan-banan arakatzen dituzte minen bila” dio Ilyanak, 68 urteko emakumeak. Bera Komuna deituriko herri inguruan dagoen auzune batekoa da eta beldurreratik ez omen da itzuli. “Etxea erreta dago. *Grad* misil batek eztanda egin zuen teilatuan eta hiri erdian dagoen zulo batean babestu



nintzen. Bertara joateko ere gorriak ikusi nituen. Bi bandoetako soldaduak zeuden eta ikaratuta geunden ea gu tirokatuko gintuzten. Inguruko bizilagunekin egin nuen ihes. Izugarria izan zen” gehitu du Ilyanak.

Komuna deituriko herria, Devaltsebotik 5 kilometrora dago. Ez da inor bizi. Ez behintzat lurra landu eta animaliak zaintzen zituen inor. Frontea da herria. Etxe gehienek ez dute teilaturik, gutxi dira erreta ez daudenak. Kosakoak daude fronte honetan, Devaltsebo eta inguruko eremua ondo zaindu bailiteke hemendik. John kosakoa da, baina kapela afganiar bat du buruan. “Lagun afganiar komunista batek eman zidan Amerikako Estatu Batuetako kartzelan nengoela. Bost urte igaro nituen bertan bizi eta lan egiteko paperik gabe harrapatu baininduten. Bueltan ez nekien nora joan. Nire familia handik hona mugitu zen beti eta ni kartzelan nengoela gurasoak eta bi anaia hil

ziren. Horren berri ziegatik irtetea izan nuen. Ez zidaten bisitarik ez komunikaziorik izaten utzi. Kexatu nintzen baina amerikarrekin alferrik da” dio Johnnek ukrainar armadari harrapatutako tanke batean deskanstu hartzen duen bitartean.

Frontera eraman nau. Ukrainarrak omen zeuden bertan eta alde egitean atzean utzi zituzten hainbat tanke, arma eta bonba. Lur azpiko gotorleku bat erakutsi dit. *Devaltsebo 5 stars* jartzen du sarrerako zuloan. Barruan halere ez dago batere luxurik. Lokatza eta zikinkerriak pilatzen ari dira. “Ez dugu zulo hau erabiltzen. Ez dakit zertarako egin zuten horrelakorik hemen. Gerra hau artilleria gerra bat izaten ari da. Frantziar soldaduek gutxi eta aurrez aurre ez diogu bata besteari eraso egin aspaldian” dio Johnnek. Patxadaz ukrainarrei ostutako armak erakusten jarraitzen du. Birrindutako lubakiak eta lehertu ez diren *Grad* misi-



lak. Zulo horietako batetik neskaila bat irteten ikusi dut. “Jendea gosez dago eta lubakietan jan bila ari dira. Herritarrei ez zaie behar adina laguntza iristen. Guk, gure eguneko otordu bat kendu dugu inguruko behartsuei emateko. Ez da nahikoa eta laguntza eske gabiltza. Donetsk-etik ekartzen dute zerbait baina ezer gutxi” esan dit Johnnek. Telefonoa eman dit eta kosakoek ohi duten bezala bere etxera gonbidatu nau: “Zuk dei nazazu, eta nik etxerik edo dudanean etorri zaitez niregana” dio Johnnek. Elkarri agur egin diogu.

Devaltsebora itzuli eta argi-generadore zarata dago. Sake-lako telefonoak kargatzen ari da jendea kalean. “Bihar agian telefono zerbitzua berriro martxan egongo dela esan dute. Jendeak bere senitartekoei

zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, nire arreba izarok lana du desgaitasuna duten pertsonen alde egiten duen tailer batean”

Jon, 33 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Kampainaren kostua: 17.500 €



AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com




deitu nahi die. Ez dute beraien berririk izan aspaldian” esan du Costak. 34 urteko gazte honek inguruko lantegi batean lan egiten zuen. “Ukrainarrak sartu bezain pronto lantegiak okupatu zituzten. Gerrarako beharrezko zena mantendu eta esklaboak bagina bezala lanean jarri gintuzten. Gau eta egun ia deskantsurik gabe. Beste lantegiak erre egin zituzten. Bazekiten ondo zantar horiek zer min egingo zioten hiriari jendea lanik gabe uzten bazuten. Orain ez dago ezertan lan egiterik. Laguntza soilaz bizi gara” esan dit haserre.

Ukrainarrak bueltatuko ote diren beldurrez dago jende asko. Ez dute galderarik erantzun nahi

ezta argazkietan agertzerik ere. Piotr, Donbasseko gobernuak bidali duen teknikari bat da. Ez du bere aurpegia erakutsi nahi “familiarren zati handi bat Ukrainan baitago oraindik”, esan dit. Gaur egungo egoeraz galdetuta zera erantzun dit: “Jendea desanimatua dago. Hiri honetan jendeak lan asko egiten zuen eta apenas zegoen langabeziarik. Orain dena galdu eta ez dute etorkizunerako ezer hoberik ikusten. Guk, berreraikuntza planak hasi ditugu boluntarioekin. Ospitalea konpondu eta etxeak minez garbitzen ditugu, pixkanaka jendea bere ortuetara eta sukaldera itzuli dadin. Suntsipena handia da baina inurritxoak bezala gabiltza pixkana”. ■

Herri mugimenduak kultur enpresaren kudeatzaile

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Sanagustin kulturunea

Kokapena: Azpeitia, Plaza Nagusia.

Izaera juridikoa: Kooperatiba.

Helburua: Euskal kultura sustatzeko herritarrek kudeatutako kulturunea izatea.

Bazkideak: 380.

Sorrera urtea: 2011.



SANAGUSTIN KULTURGUNEA

Koordinaziorako taldetxo bat badago ere, erabakiak kultur-mahaian hartzen dira, asanbladan. Eragileek eurena sentitzen dute Sanagustin, eta tokia lortu du herrian.

KOOPERATIBAKO asanbladara doa Xabier Aranbarri, “enpresako” gerente izendatuta baitago. Hitz egingo dute urteko plangintzaz, bideragarritasun ekonomikoaz, sektorearen indargune eta gabeziez... baina kulturaren ikuspegitik. Xabier eta bere kideena ez baita kooperatiba arrunta, Azpeitiko kultur eragileek eta norbanakoek herrian euskal kultura sustatzeko helburuarekin sortutako kooperatiba baizik. Eta Sanagustin kulturunea dute biltoki.

Normalean horrelako gune bat bideratzeko Udalari eskatuko litzaiokeenari alternatiba planteatuz, herriko kultur eragileek beren gain hartu dute Sanagustinen antolaketa. Koka zaitezten, irakurle: gaur Azpeitian eza-gun den Uztarrria proiektu komunikatiboa du sorleku aipatzen dudana kultur-mahaiak. Euskal kultura bultzatzeko eta haren transmisioari jarraipena emateko sortua, herriko plazan dagoen Sanagustinen gunea bideratzeko aukera iritsi zitzaizen. Urte luzez Elizarena izandakoa –eta eraikina bera ere eliza izana– berreskuratu eta berreraiki zuen Udalak XXI. mendeko lehen urteetan, eta beronen kudeaketa noren esku geratu

lehiaketara atera zuen. Kultur-mahaiarentzat aukera paregabea, herritarrek eurek kudeatutako toki bat osatzeko. Proiektua prest, lehiaketan parte hartzeko osatu behar izan zuten kooperatiba, figura juridiko bat izatea baitzen oinarrietako bat; eta beraz, aukerarik onena iruditu zitzaizen kooperatibaren formula.

Lehiaketa irabazita, 2011ko uztai-lean ekin zioten, Sanagustin Azpeitiko kulturunea, kooperatiba elkartearen izenarekin kulturunea kudeatzeko lanari. Eta betiko eskemetan enpresak negozio moduan ikusten baditugu ere, honek izaera guztiz soziala eman dio herriko eragileak oinarri.

Finantzazioa

Egunean zehar taberna bezala funtzionatzen du, eta diru-iturri horrek babes ematen die. Baina bideragarritasun ekonomikoaren gakoa, azpimarratzen dute, elkarlana da. Alegia, egitaraua ez da talde txiki baten edo kanpotik datorren eragile, administrazio edo enpresaren baten esku egoten; mahaiko eragileek beren beharren eta eskaeren arabera anto-

latzen dituzte beharrezko ikusten dituzten hitzaldi, kontzertu, eztabaidak... eta horretan datza arrakasta, antolatzen den orok babes soziala izaten baitu. Horrez gain, erakunde publikoen laguntza ekonomikoa jasotzen dute, baina ahalik eta buruaskien izaten ahalegintzen dira, administrazioetik datozen diru-iturrien menpekotasunik ez baitute nahi.

Soreasu antzokia

Orain gutxi bigarren erronka zabaldu zaie: Soreasu antzokia. Azpeitiko erdigunean dagoen antzokiak mugimendu gutxi izan du orain arte, eta duela hilabete batzuk hartu du bere gain kultur-mahaiak. Zine emanaldiak eskaintzeko aproposa, euskal zinemaren eta film alternatiboaren aldeko apustua eginez ekin diote lanari, eta egitarau zabala antolatzen ari dira.

Dena dela, esku artean daukaten guztia finkatu beharra daukate orain. Erronka asko dituzte aurretik, baina daukatenari oinarri sendoak jarri nahi dizkiote. ■

«Ingelesa ez, euskara da baliagarria Nafarroan»

Españolismo linguistikoak erreminta ezin hobea aurkitu du euskara isolatzeko: ingelesa. Hizkuntza horren inguruan mito eta gezur asko dagoela uste du Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalari madrildarrak. Joan den urteko hondarrean izan zen Iruñeko Katakarak-en, Manu Robles-Arangiz Fundazioak gonbidatuta. Nafarroako Gobernuaren eskoletako Ingelesa Ikasteko Programa izan zuten ardatz berak eta gainerako hizlariak. Moreno Cabreraren hitzaldiaren laburpena da ondokoa.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

GAUZA BAT DA INGELESA erabilgarria den ala ez, ikasteak merezi duen ala ez. Jakina merezi duela ingelesa ikasteak, baita beste hizkuntzak ikasteak ere. Dena dela, ingelesak baditu gaur egun hainbat ezaugarri mitiko, batzuetan magikoak. Ezaugarri horiek kolonialismo linguistikoarekin daukate zerikusia. Alegia, herritarrak bere hizkuntza hitz egiten du, badator kanpoko hizkuntza eta sinetsarazi diote hizkuntza hori askoz erabilgarriagoa dela, askoz hobea dela, ezaugarri ia magikoak dituela. Jada ez zaitu inork konbentzitu behar hizkuntza hori ikasteko. Gogorarazten dizuet Penintsulan gauza bera gertatu zela gaztelaniarekin, eta gaur egun ere gauza bera gertatzen da.

Jende orok hitz egiten du ingelesa

Gezurra. Japonian Munduko Saskibaloi Txapelketa jokatu zenean, hainbat kazetari harrিতa zegoen, japoniarrek ez baitzuten ingelesa hitz egiten. Arazoa ez dago Japonian, baizik eta Japonian askok ingelesez hitz egiten duten sinesmen horretan.

Egia da, Europako hainbat herrialdetan, Herbehereetan, eskan-dinaviar herrialdeetan, ingelesez oso ondo moldatzen den jendea aurki

daiteke, baina ezin da esan Europan hala gertatzen denik. Frantzian, Alemanian, Errusian, Grezian, Italian ezin dugu elkar ulertu ingelesez. Jakina dagoela ingelesez egiten duen jendea, gaztelaniaz, frantsesez edo italieraz bezala. Edonork ingelesa

“Inork ez du zalantzan jartzen ingelesa ikasi behar den ala ez. Are gehiago, hizkuntza menperatu behar da”

J. C. Moreno Cabrera, hizkuntzalaria

hitz egiten duela indarrez sartu zaio jendeari buruan eta ikasi behar dutela sinetsi dute, erabiliko duten ala ez, lanean behar duten ala ez, pentsatu gabe. Are okerragoa, sinestuta dago ingelesa ez badaki sekulako gabezia duela, kulturalki akastuna dela, alfabetoa.

Horregatik, inkestetan jendeari galdetzen zaionean ingelesa ba al dakien baietz erantzuten du. Beldurra ematen die bestelakorik erantzuteak. Ideologia zentzugabe horren arabera, ingelesa globalizazioaren hizkuntza da. Ez. Ingelesa baliagarria da, baina batzuetan berez ez

dauzkaten ezaugarriak atxikiz, hizkuntzak inposatu egiten dira. Bere garaian gauza bera gertatu zen latinarekin eta grezierarekin.

Lanerako, egunerorako, beharko duzu

Lan ona aurkituko duzu. Hara non, Alemanian erizain izan nahi duenari alemana eskatuko zaio, alemana hitz egiten duten gaixoak artatu beharko baititu. Frantziara joan eta ileapaintzaile edo arotz izan nahi badu, frantsesa jakin behar du frantsesekin aritzeko. Hau esan ohi didate: “Maila handiko exekutiboek-eta ingelesa jakin behar dute”. Denok gure seme-alabak multinazionalitateko goi-mailako exekutiboak izateko hezten ari al gara bada?

Beraz, ingelesa ez da baliagarria Nafarroan, ez behintzat egunerokotan. Ingelesa erabilgarria da, merezi du ikasteak, literatura interesgarria dauka, ez diot ikasi behar ez denik, baina ez esan mundu osoan ulertzeko balio dizun hizkuntza dela. Beno bai, agian, munduko aireportu guztietan. Dena dela, aireportuan ahalik eta denbora gutxien egoten gara, 6-7 ordu badaramatzat handik ateratzeko desiatzen nago. Museoetan ere bai, ados. Museo handietan, zeren ni Armeniako museoetan

egon naiz eta han errusieraz baino ez zuten hitz egiten. Baina umeak ez ditugu heziko museoetan bizitzeko ezta? Gure seme-alaben heziketa ingelesaren inguruan sortu den ideologia baino askoz serioagoa da.

Ingelesa eztabaidaezina da

Interes politikoa al dago ingelesa neurritz kanpo balioztatzeke eta euskarak gutxiesteko? Mito aureolari aurre egin behar zaio, zeren besteak beste ingelesari berari egiten dio kalte, hizkuntza hori besteak bezain-beste duina baita. Hizkuntza inperialista eta inposatzaile gisa agertzen da, baina hizkuntzak ez dira hala.

Aureola horren barruan, bitxia da, ingelesa eztabaidaezin bihurtu da, inork ez du zalantzan jartzen ingelesa ikasi behar den ala ez. Are gehiago, hizkuntza menperatu behar da, hitz-jario jatorra behar da izan. Kultura handiko jende askok sufritzen du, ingelesa ez dakielako. Nik lana egiten dudun unibertsitatean ingelesa menperatzen ez duen oso kultura maila handiko jendea dago. Ingelesa ez menperatzeagatik kulturalki gabezia handia dugula esaten digute.

Españolismo linguistikokoak euskara isolatzeko erreminta ezin hobe lortu du. Inork zalantzan jarriko ez duen zerbait aurkitu behar badugu, badakigu zein den erreminta perfektua: ingelesa. Erreminta ezin hobe euskarak hezkuntza sisteman aurrera egiten jarrai ez dezan. Euskara ikasi beharko da, baina askoz garrantzitsuagoa da ingelesa ikastea.

Nik jarraitzen dut esaten Nafarroan egunerokoan bizitzeko askoz garrantzitsuagoa dela euskara jakitea ingelesa jakitea baino. Informatikako multinazional batean lan egiteko litekeena da ingelesa eskatzea eta ez euskara, baina Nafarroan euskara hizkuntza erabilgarria da, ez da hiz-



ARGIA

“Denok gure seme-alabak multinazionalak goi-mailako exekutiboak izateko hezten ari al gara bada?”

kuntza atzerritarra. Horregatik, hiru eleko hizkuntza ereduaren ideiarene aurka egiten dut, hiru elekoa gaztelania, euskara eta ingelesa ulertzen badugu. Akats handia da. Euskara ezin da jarri gaztelaniaren eta ingelesaren mailan. Hiru elekoak horrela beharko luke: euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza. Ingelesak fran-

“Hiru elekoak horrela beharko luke: euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza. Ingelesak frantsesarekin, italierarekin... lehiatu beharko du”

J. C. Moreno Cabrera,
hizkuntzalari

tsesarekin, italierarekin... lehiatu beharko du eta ez du inolako arazorik izango horretarako, eta atseka bez diot. Zeren ingelesa ikasteko erabiltzen den denbora erdian frantseseko erdi maila lor daiteke, adibidez. Ezagutzen dut bizitza guttia

ingelesa ikasten ari den jendea eta ez dena gai telesail bat jarraitzeko. Denbora erdia frantsesa, italiera edo portugesa ikasteko erabili izan balute... Beraz, hiru eleko eredu euskara, gaztelania eta ingelesa izatea onartezina da. Euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza beharko luke izan, eta atzerriko hizkuntza bakarraren orde bi badira bi. Ingelesak ez die garrantzia eta denbora kendu behar euskarari eta gaztelaniari. Hori bai, gaztelania Nafarroan hizkuntza nagusia izanda, eta euskara gutxiagotua, denbora gaztelaniari kendu behar zaio, ez euskarari. Jakina, uste badugu euskarak indar handiagoa hartu behar duela, bestela noski ezetz.

Nafarroan intentzio politikoa ote dagoen ingelesa gehiegi balioztatzeke eta euskara gutxiesteko? Españolismo linguistikoaren sustraiak anglizismo inperialistaren berdinak dira. Gaztelania eta ingelesa, katalana eta euskara baino goragoko hizkuntzak dira.

Jakina, ingelesa sartzeko intentzio politikoa dago, ingelesa ez da eztabaidagarria. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Galindok barrabilak estutzen zituenekoa

Mikel Zabalza atxilotu zuten gau berean eraman zuten Ion Arretxe Intxaurrendoko kuartelera. Tortura latzak jasan zituen, eta orduan bizitakoa bildu du liburu batean.

| XABIER LETONA |

INTXAURRONDOKO kuartela, 1985eko azaroak 26.

Norbait garrantzitsua sartu zen gelan. Berehala nabaritu nuen. Akaso bere inguruan egin zen isiltasunagatik, edo hartu zuten morrontza moldeagatik. Nire aurrean jarri zen... Kaputxa kendu zidan...

—Ba al dakizu nor naizen?— galdetu zidan.

—Bai. Galindo zara.

—Zure komandokoek jarraipenen bat egiten ari zarete edo?

—Ez, inondik ere ez.

—Orduan zergatik ezagutzen nauzu?

—Telebistan ikustetik ezagutzen zaitut.

Barrabiletatik heldu eta biburritu egin zizkidan.

—Gauzak kontatzeko ekarri zaitugu bona... Beraz ez dezagun denborarik galdu eta hasi bitz egiten mutil... bestela, lebertu arte biburrituko dizkizut barrabilak.

Barrabilak estutu zizkidan eta jota utzi ninduen. Kaputxa jarri zidan berriaz eta alde egin zuen.

Horrela ezagutu zuen Ion Arretxe Enrique Rodríguez Galindo, garai hartan Intxaurrendoko Guardia Zibilaren buru zena, eta geroago Joxi Lasa eta Joxean Zabalaren tortura eta hilketengatik espetxeratutakoa. Rodríguez Galindok 75 urteko kartzela zigorra bizkarreratu zuen baina 4 urte pasa zituen espetxean, gaixotasun larria argudiatuta eman zioten askatasuna.

Ion Arretxek Madrilen aurkeztu berri duen *Intxaurrendoko. La sombra del nogal* (Intxaurrendoko. Intxaurrendokoaren itzala) liburuaren pasarte bat da goikoa. 2008an egin zen ezagun bera ere Mikel Zabalza atxilotu zuten gauean eraman zuela Guardia Zibilak. Eraman eta torturatu. Urte horretan, Jaime Rosales zine zuzen-



FIATLUX.COM



Goian, Ion Arretxe, Zabalzarekin batera torturatat jasanakoa. Behean, Galindo.

dariak *Tiro en la cabeza* filman protagonista etakide bat zen aktore nagusiaren papera eman zion eta, horren harira, Ion Arretxek 1985ean atxilotu zutenekoa kontatu zuen. Madrilen bizi da egun eta gidoilari, marrazkilaria, zuzendari artistiko eta idazlea da.

Arretxe 1985eko azaroaren 26ko goizaldean atxilotu zuen Guardia Zibilak Erretereriako bere gurasoen etxean, 21 urte zituela. Gau horretan bertan atxilotu zituzten Mikel Zabalza, Idoia Aierbe haren neskalaguna, Zabalzaren lehengusu bat eta Ion Arretxe bera.

Guardia Zibilak ETako komando bateko kide izatea leporatu zien, baina Arretxeren esanetan berak ez zituen beste hiruak ezagutzen. Arre-

txe etxean atxilotu eta mendira eraman zuten, kolpeez eta irainez gain, erreka batean burua behin eta berriz sartu zioten, ia itotzeraino. Tortura latzak jasan zituen hamar eguneko atxilo aldian eta, Madrilgo Carabanchelgo espetxean hiru egun egin ondoren, epaileak kargurik gabe libre utzi zuen.

“Nik ez nuen inoiz ikusi Zabalza —dio Arretxek liburuan—, eta zer gertatu zen segurtatzeko moduko ausarta ez naiz izango. Baina irudika dezaket, eta ez da asko irudikatzea, atxilotu gintuzten gauean ni eraman ninduten toki beldurgarri eta ilun berera eramango zutela, burua erreka berean sartuta torturatuko zutela, eta eskuetatik joan zitzaicela”.

“Zabalza eskuetatik joan zaie”

Pedro Gómez Nieto guardia zibila Intxaurrendon zegoen garai haietan eta CESID Espainiako zerbitzu sekretuen buruetakoa zen Juan Alberto Peroteri zera esan zion 1985ean: “Zabalza eskuetatik joan zaie, galdeketetan geratu zaie”. *El Mundo* egunkariak eman zuen horren berri 2004an.

Antza, hil eta berehala kuartelean bertsio bat asmatu zuten: atxiloketaren gauean hiru guardia zibilek zainduta zulo batera zihoazenean Bidasoara egin zuen salto Zabalzak. Horretarako, Intxaurrendoko igerileku batean —beste batzuen esanetan Bidasoako urez betetako bainuontzi batean— eduki zuten gorpua, eta egun batzuk geroago Bidasoara bota zuten.

Espezialista askoren ikuspegitik, oster, Zabalzaren ihes modua sinsegaitza zen. Baina 25 urteren ondoren kasua artxibatu egin zen eta hala jarraitzen du. ■

Elebideri eskaera kopuru laukoitza, Arrasateko “Kexa poteoari” esker

MARTXOAREN 13AN, Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Arrasateko Jai Zale tabernan eseri ziren Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina. Helburua: Elebiderako, Behatokitako, Sendagilean Elkargorako eta Osakidetzak eskualdeka dituen zuzendaritzetarako osasun alorreko kexak eta iradokizunak biltzea. Lan moldea: Ostirala zela baliatuz, poteoan lasai ederrean zebiltzanek kexak helaraziko zizkieten bi boluntarioei eta haiek arduratuko ziren bidalketak egiteaz.

90 kexa eta iradokizun jasotzea lortu zuten, eta Montesez adierazi duenez, gainezka egin zuten eta ezin izan zituzten eskaera guztiak bideratu. 90 horietatik 78 Elebidera bideratu dituzte. Alderaketa egiten hasita, 2013an Elebiden 228 kexa jaso zituzten zerbitzu publikoei lotuta, eta horietako 20 baino ez ziren osasunari lotutakoak. Beraz, kopurua



Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina, arrasatearrek egindako kexa eta iradokizunak bideratzen. Beraiek ez zuten poteatzeko astirik izan.

laukoiztu da arratsalde bateko ekinaldian.

Antolatzaileek, 2015ean, Arrasateko bilketa modua erabiliz edo bestelako moduez, 2.000-3.000 kexa lortu nahiko lituzkete. Herritarren presioa, eskaria, eskaintza bihur daitekelako.

“Haur eskolak euskaraz”, eta eremu mistoan

NAFARROAN, Euskararen Legea aldatzea lortu da. Eremu ez-euskaldunean, eskola publikoetan euskarazko adarrak ireki ahal izango dira, eskaera kopuru jakin bat baldin badago. Ateak zabalik dira eremu horretan, baina horrek ez du esan nahi beste eremuetan euskarazko adarrak eskatu ahala irekitzen direnik. Eremu mistoan, Iruñean zehazki, “haur eskolak euskaraz” eskatzen ari dira aspaldidanik. Azken protesta martxoaren 11n egin dute, Arrotxapea auzotik Udaletxe plazaraino, eta Iruñeko Udalari eskatu diote haur eskola gehiago prestatzeko euskaraz.

Gaur egun bi haur eskola baino ez daude, biak Txantrea auzoan. Horietako bat Arrotxapea eraman-go dute. Alabaina, eskaera eskaintza baino handiagoa da Nafarroako hiriburuan.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Zergatik egoskortu AHTrekin?

ABIADURA HANDIKO TRENAREN aldekoek, batez ere Espainia, Madril, Gasteiz eta Iruñeko gobernuek, baina baita etekin handienak aterako dituzten zementugile eta ingeniariak enpresek ere, azken egunotan sekulako zaplaztekoa jaso dute aditu independenteen partetik. Laburrean, legebiltzarreko egoitzan azaldu dute AHTa –eta bereziki “Euskal Y”-a– ez litzatekeela eraikitzen hasi behar inoiz, finantzen ikuspegitik ez delako bideragarria, ezta jasagarria ere, ingurumenari eta gizarteari begiratuz gero.

Erakundeei proposatu diete proiektua geratzea, eta aurrera segituz gero, abiadura handiko linea birmoldatzea erdibidean geltokiak izango dituen ohiko abiadurako trenbide bat eginez. Hasierako proiektuak EAEko hiru hiriburuak lotzea baino ez du helburu eta Iruñea korridore baten bidez konektatzea. Txartelen prezioa 25 euro ingurukoa litzateke hiriburu batek bestera, eta Madrilera joateko berriz 75 eurokoa. Elitista izateaz gain, ez luke inolako abantailarik izango autobusarekin alderatuta, hau askoz merkeagoa baita eta ibilbide bera egiteko minutu gutxi batzuk gehiago besterik ez baititu behar. Europarekiko kone-

xioa funtsezko helburutzat dute, baina momentu honetan ez du inolako datarik.

AHTk Euskal Herrian 10.000 milioi euroko aurrekontua zuen: 6.000 milioi “Euskal Y” delakoak, 3.150 milioi Nafarroako korridoreak eta beste 1.000 milioi Lapurdiko zatiak. Oraindik 4.000 milioi euro jarri behar omen dira. Gauzak horrela, zergatik egoskortu ingurumena eta ekonomia kaltetzen dituen proiektu antisoziala aurrera eramaten? Arrazoi bakarra baizik ezin daiteke egon: proiektua inoiz eztabaidatu nahi izan ez duten horien interes politikoa, beste talde sozial, herrikoi eta politikoen –bereziki ezker abertzalearen ingurukoak– eta ETaren ikuspegiaren aurrean inposatu izanagatik. Orain proiektu hori geraraztea litzateke, praktikan, “estremistei” arrazoiak ematea. Eta hori ezin dute onartu. Kosta ahala kosta egingo dute, hori bai, diru publikoarekin, nahiz eta aditu horietako batek dioen “helikoptero zerbitzua” errentagarriagoa litzatekeela “Euskal Y”-a baino. Latza da hori gero, egoskortuta dauden instituzioetako kideentzat!

Juan Mari Arregi

Nolako Errusia da Vladimir Putinek buruan darabilena?

Putin anti-moderno da, kontserbadorea eta inperialista. Mendebaldea eta nabarmenago Europa gainbehera datozela sinetsirik, eredu politiko eta sozialtzat “bide errusiarra” aldarrikatzen du. Hori dio Michel Eltchaninoff filosofo frantsesak, politikariaren erreferentzia teorikoak azterturik *Dans la tête de Vladimir Poutine* liburuan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HAINBAT LIBURU ARRAKASTATSU plazaratua du Michel Eltchaninoffek, tartean telezaborra analizatzen zuen “*L'Experience extreme*” polemikoa. *Philosophie Magazine* hilabetekariaren zuzendariorde da. Fenomenologia eta pentsamendu errusiarrean berezitua, *Dans la tête de Vladimir Poutine* argitaratu du, bere ustez Errusiako liderrak darabiltzan ideien deskribapena. Gizarte zientziatoko liburuez informazio eta elkarrizketa aberatsak eskaintzen dituen *La Vie des Idées* gunean elkarrizketatu dute. Hona han esanen pasarte hautatuak.

Sobietar aroaren oinordekoa da Putin, bere lehenengo berrogei urteak Sobietar Batasunan bizi izan ditu. Ondo erantsi zaizkio orduko balioak, abertzaletasuna, militarismoa, potentzia handiaren konplexua. Lan egin du bere ustez nazioaren elitea biltzen zuen KGBn, 1991n FSB bihurtua. Aldiz, badirudi ez duela inoiz sinetsi Estatu ekonomia-aren eredu komunistan edo klase-rik gabeko gizartean. Ondorioz, 1999an agintera iritsi denetik sobietartasuna ezarri nahi izan du berriro. Hala ere, berak aitortu du asmoa duela uztartzeko tsarismoaren eta komunismoaren herentziak.

2000tik 2004rako aginte aldiaren profil liberal bat eskaini zuen Putinek. Mendebaldeko sistemen estan-

darretara biltzen da, eta aldarrikatzen du Errusian egonkortasuna eta hazkundera berreskuratzea, mundu mailako prestigioarekin batera.

Baina 2004tik aurrera Beslango triskantzak ebaki zion modernizazioaren aldeko hizkera. Kaukaso aldean Beslan herriko eskolan militante txetxeniarrek ikasle, irakasle eta gurasoak bahiturik, Errusiar Armadaren indar bereziek egindako eraso kaotikoan 346 pertsona gertatu ziren hilik. Biharamunetik Putinek diskurtso politikoa arras aldatu zuen.

Hamabost egunen buruan jakinarazi zuen eskualdeetako buruzagiak Moskutik izendatuko zirela, bertako jendeek hautatzeko orde. Eta Moskuko patriarka ortodoxoaren gana jo zuen Putinek, Errusia Elizaren laguntzarekin askatzeko *jende basatien* hatzaparretatik. Georgiatik (2003) Ukrainara (2004) Sobiet Batasun ohian ugaritu ziren *koloretako* iraultzak haserre hartuko zituen, zer esanik ez Baltiko itsas bazterreko herrialdeak OTANen eta Europar Batasunan sartzea.

Gertakizun hauekin jabetu da Putin Mendebaldeko potentzien etsaigoari egin beharko diola aurre. Dimitri Medvedev 2008tik 2012a arteko agintaldiaren ondotik, berriro lehendakaritza jarrita areago nabarmenduko ditu Vladimir Puti-

RIA Novosti agentziarentzako Alexey Rikolskyk egindako argazkiak Vladimir Putin erakusten du 2014an iristen Neguko Olinpiar Jokoak burutu behar ziren Sotxira. Aurrean dauka, berari begira, Vladimir Yakunin Estatuaren trenbide konpainia nagusiaren lehendakaria eta Putinen hurbileneko laguntzailea, Eltchaninoffen aburuz. Yakuninek Mendebaldearen kontrako mintzo bortitza erabiltzeaz gain, urtero joaten da Jerusalemara erromes eta Errusian santuen erlikien *tournee*ak antolatzen ditu: Errusiaren berpizkunde erlijiozko eta moralaren abangoardia izan nahi du Yakuninek. Eragin handia omen daukate Putinen aita konfessore den Tikhon Chevkounov apezak eta Nikita Mikhalkov zinegi-leak. Denek ere berenganatzen dituzte atzerrian hil zen Ivan Ilyne filosofo ultraeskuindar eta antikomunistaren ideiak, zeinaren testuak gero eta sarriago agertzen omen diren ikasleek eskoletan egin beharreko lanetan.

nek aurreko bi agintaldietako ezau-garriak: kontserbazionismo dekadentean erori eta sustrai kristauetatik urrundu dela uste duen Mendebaldearen kontra ekin dio; “bide errusiarra” aldarrikatu du Mendebaldearen etsaigoari kosta ahala kosta aurre egiteko; Eurasia deitu proiektua bizkortzen ahaleginduko da.

Eurasia, “lehorreko inperioa”

Vladimir Putinen erreferentzia ideologikoetan hiru nabarmendu ditu Eltchaninoffek. 2005etik hona sarritan aipatu du Ivan Ilyne (1883-1954) filosofo errusiar atzerriratu, antikomunista eta antidemokrata, Franco eta Salazarren mireslea. Kontserbazionismoa oinarritzeko formulak hartzen ditu Nicolas Berdiaev (1874-1948) eta Constantin Leontieven (1831-1891) idatzietatik. Eta teoria eurasiarra sustengatzen du Lev Goumilev (1912-1992), ideologo sobietarraren ginean.

Errusia Handiaren historian konpondu beharreko gai nagusi bat beti izan delarik –Eltchaninoffen ahotik ari gara– nola uztartu herrialdearen batasuna bere baitan dituen nazio eta kultura hain ezberdinen arteko elkarbizitzarekin, maila praktikoa Putinek burdinazko ukabila erabili du, Txetxenian hasita. Bortizkeriarik odoltsuenaz *baketu* zuen



Txetxenia, han agintzen ipiniz gaur jaun eta jabe dirauen Kadirov. Txetxenian hasita Kaukaso osoan gero, bukatu ziren autonomia eta gainerako ameskeria lokalak, horren orde ezarritz *aginte bertikal* deitu zaiona.

Maila teorikoan, ordea, tartekatzen ditu batean Errusiaren izate kristau ortodoxoa eta hurrengoan nazioaren etnia anitzeko eta kredo ezberdineko izaeraren apologia, harro aldarrikatuz Errusiak 15 milioi musulman dauzkala bere eremuan. *Eurasismoa* deitu denaren teorikoak ahalegintzen dira erakusten Europa eta Asia artean hirugarren kontinente bat dagoela, Eurasia, koherentzia bat omen daukana klima, landaredi, hizkuntza eta paisai aldetik, horietan elkarrekin bizi

baitira eslaviar ortodoxoak, turkofono musulmanak eta baita budistak ere.

2013ko hitzaldi batean Putinek esan zuen Errusiak biltzen duela *leborreko inperioa*, gai den aurre egiteko *itsasoko inperioa* dena Euroatlantidari. Errusiaren alderantziz, Europar Batasunak porrot egin du: ez da gai ez bere herritar guztien ongizatea bermatzeko, ez nazioartean bere burua indarrez azaltzeko.

Europa zabalik egonik klase guztietako etorkinei, ez du asmatu islamismoaren pozoia aurre egiten. Herritarrei dagokienez, europarrak bururik gabeko kontsumista bilakatu dira, azalekoak, abertzaletasun eta ideia handi guztiekiko zentzu oro galdu dute.

Erlatibismo horren kontra, kulturazko gainbeheraren, politikoki politaren, amnesiaren, masokismo demokratikoaren eta minoriekiko ahuleziaren aurrean, Putinek sustatzen du hezkuntza morala oinarritua kristautasunaren balioetan, kultura klasiko eta liburutarrean, abertzaletasunean, militarismoan eta hierarkiarekiko errespetuan. *Konplexutasun loraberrituaren* teorikoa den Constantin Leontievi jarraiki, Putinek uste du Europa gain behera datorren bezala Errusia bere historiaren gorako fasean dagoela.

2011ko protesta handien ondoren hartu duelarik berriro agintea, Putinek bi ardatzetan oinarritu du herritarrak bereganatzeko diskurtsoa: ama Errusiaren handitasuna eta etsai erasokorrez inguratuta gotorturik bizitzearen kontzientzia.

Krimea bereganatzeko hitzaldian esan zuenez, 2014ko martxoan, XVIII. mendetik ari dira Mendebaldeko potentziak Errusia hesitu nahian. “Baina denak du bere muga. Eta Ukrainari dagokionez, mendebaldarrek marra horia pasa egin dute. Baldar, axolagabe eta modu ez profesionalean jokatu dute”.

“Errusiarren gehiengo izugarriak –amaitu du Eltchaninoffek– Putinen hitz anti-mendebaldetar eta espansionistak ontzat ematen ditu antza. Baina egoera ez egonkorretan iritzi publikoa aldakorra izan ohi da. (...) Ikusi beharko da Putinen hitzek noiz arte liluratuko dituzten errusiarrek. 2015 gogor bat nozituko dute petrolioaren merkatzeak eta, neurri txikiagoan, Mendebaldeko zigor ekonomikoek ekarritako krisiagatik”. ■





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Eskerrak gardentasun garaian gauden

NAFARROAKO KUTXAREN

desagerpena ikertzen duen Nafarroako Legebiltzarreko batzordeak martxoaren 20an aurkeztuko ditu ondorio nagusiak. Funtsean, ezingo du bere helburua bete duela esan, hau da, CANen desagerpena nola gertatu zen azaltzea. Hasieratik sumatzen zen bezala, hori hurrengo legealdirako geldituko da, Legebiltzarreko osaketak horretarako aukerarik ematen badu bederen.

Baina ahaleginak merezi izan du, zalantzarik gabe, batez ere hainbat datu eta borondate oso agerian geratu direlako. Bat, CANeko kudeatzaile obiek ez dute ikerketarik errazteko inongo asmorik, ezta kudeaketa hau zaindu behar zutenek ere. Bi, PSN berriz izan da giltzarri Batzordeak egiazko ikerketarik egin ez dezan eta berriz UPNrekin aliatu da elkarrekin azken 30 urteetan egindako ibilbidearen babesean. Hiru, agertutako datu, azterketa eta borondateek, argi utzi dute CANen kudeaketa oso txarra izan zela.

CAN Fundazioak, Espainiako Bankuak, Caixabank, FROBek (Banku Erreformatarako Birrantonaketa Ordenaturako Fondo) eta CECaK (Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioa) ukatu egin diote Nafarroako Legebiltzarrari honek eskatutako informazio esanguratsuen. Madrilgo Parlamentuko batzorde batek eskatu izan balio, hari ematera behartuta leudeke, baina parlamentu autonomo bati ez; funtsean, datuen babesarako legea urra dezaketela argudiatu dute. Eskerrak ustelkeriaren aurkako eta gardentasunaren aldeko garaian bizi garen!

Diruaren kudeatzaile erraldoiak Ezkutalekun gotortu dira, baina diruaren zaintzaile txikiak leioak ireki eta aire freskoaren sarrera ahalbidetu dute. Hori da Nafarroako Kontuen Ganberak beste behin ere egin duena. Nafarroako Legebiltzarrak eskatu zion aztertu zitzala CANeko kontuak 2001etik 2011ra, tartean Banca Cívica sarrera. Ondorioak beste behin ere azpimarratu du gertatutakoaren hondamendia: 2009an banku fusioen prozesuari ekin aurretik CANek 1.170 milioi euroko balioa zuen eta prozesu honen amaieran, 2011n, Caixabank 175 milioitan erosi zuen. Zer gertatu zen tartean? Hori ezin duela erantzun aipatu du Kontuen Ganberak, horretarako informazio nahikorik ez duelako.

Ulergaitza litzateke Podemosek eta EH Bilduk bat ez egitea hainbat lekutan gobernatzeko, botoek horretarako aukera emango balute

Hilaren 20an talde bakoitzak bere ondorioak aurkeztuko ditu Legebiltzarreko ikerketa batzordean eta martxoaren 26an eztabaidatuko da osoko bilkuran. PSN berriz izango da UPNren makulu eta Ezkutalekuko leioak hurrengora arte itxiko dira tinkotasunez. Testuinguru honetan, Maria Chivite PSNko lehendakari hautagaiak hurrengo legealdi hasierarako garbiketa demokratikoa eta gardentasunari buruzko batzordea agindu du. Txiste txarra, hori da esan liteken txikiena.

Epaitegiek kontrakorik erakusten ez badute, Espainiako legediak berriz erakutsiko du nahiago duela datuak ezkatzen laguntzea, gardentasun eskaerari bide ematea baino; nahiago duela boteretsuen defentsan jardutea, herri borondatearen ordezkari den Legebiltzarrari erantzutea baino. Alde ona da hori guztia gero eta garbiago ikusi dela orain, besteak beste, oposizioak ikerketa batzorde hau bultzatu duelako.

ALDAKETA nahi du alderdi batek eta honako mezuak luzatu dizkio gizarteari: "Egungo sistema indibidualistaren aurrean mugimendu sozialek bultzatzen duten alternatiba solidarioa nahi dugu". (...) "Pertsona askoren ustez ez dago ekonomialari dogmatikoez egia zientifikotzat saldu nahi dituzten ekonomia kapitalista basatia eta muturreko kontsumoa baino bestelako ekonomiarik" (...) "Pentsamenduaren alor desberdinetatik hamarkadatan lantzen ari den Oinarritzko Errenta Unibertsala da aztertu behar den proposamenetako bat". (...) "Gure proiektua gehiago zabalak bilatzeko sortu da" (...) "Eraldaketa tresna gara".

Hego Euskal Herrian EAJ, EH Bildu, UPN, PSOE, PP eta Podemos izango dira eskaintza nagusiak oraingoz. Gorago aipatutako esaldiak EAEko Podemosen Euskal Hiriaren agiri batekoak dira. EAEko Podemosek esan du, gobernatzeko indarririk ez badu, nahiago duela oposizioan egotea. Kultura politiko oso desberdinetakoak izan arren, ulergaitza litzateke Podemosek eta EH Bilduk bat ez egitea hainbat lekutan gobernatzeko, botoek horretarako aukera emango balute. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserría,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA
www.larzaldiak.com

1



ARTIUM

ARTE GARAIKIDEKO
EUSKAL ZENTRO-MUSEOA

3 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA
www.artium.org

2



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA
www.museosantelmo.com

3



BARTOSZ PERNAL

MICHAL SZKIL
QUINTET JAZZ GETXO

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2452. Argia)

EUREKA

Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)

AQUARIUMA

Galdakaoko Aek Euskaltegia (Galdakao)
Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)
Josu Diaz De Ojalora Serna (Usurbil)
Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

SAN TELMO

Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
Ana M. Zubiarremereria Olaneta (Eibar)
Xabier Azkue Ibarbia (Zumaia)

EKAINBERRI

Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
Imanol Irigoien Aranberri (Oñati)
Jokin Igartua Madinazkoitia (Oñati)

OKATXU

Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



gunea

argia

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PROIEKTU ERALDATZAILEEN ERAKUSKETA IBILTARIA

Martxoak 9-23 **LUGARITZ**

Martxoak 23-31 **INTXAURRONDO**

Martxoak 31 - Apirilak 14 **AIETE**

Apirilak 14 - Maiatzak 4 **LOIOLA**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Datu guztiak webgunean ikusgai:

aurrekontuak.donostia.org